BASKAI (baskaidxe): bazkari. Egunean egunean lehen gauza bera jaten zen "babie urdeidxas". "domeketan garbantzue, okela egosidxe tomatiegas". Lehen denek plater batetik jaten zuten. Beti sukaldean jaten zen eta jesar-tzeko leku bat zeukan bakarria aita izaten zen. Edateko batzuek ardaa zahatetik eta besteek ura pitxar batetik.

BASKALDU: bazkaldu

BASKALOSTE (baskalostie) : bazkaloste

BASO (basue): 1. baso. 2. mendi

BASO ARAN (baso arana): basaran

BASO BIDE (baso bidie) : baso bide "Ibilli bakue esta, amaikatxo baso bide dakis orrek"

BASO KOIPETZU: txitxi burduntxi

BASO LARROSA: (baso larrosie) basa larrosa

BASOLLAR (basollarra) : basoilarr, Uztailean edo Abuztuan ei dator

BASO MAKATZ (baso makatza) : baso makatz

BASO MATZ (baso matza) : baso mahats

BASO OLLAR (baso ollarra): baso oilar

BASO TXARRI (baso txarridxe) : basurde

BASO USO (baso usue) : baso uso

BASTANTE: nahiko

BASTAR (bastarra) : bazter

BASTARRIK ANDAR IBILI: alde batetik bestera noraezean ibiltzen denean.

BASURDE (basurdie): basurde, Pasa dauka, kaminoa egiten du eta beti leku batetik pasatzen ei da. "pasuen kalte eitten dau" alanbreak eta apurtzen ditu eta. Mañaritik Abadiñon zehar Aramaiora joaten dira.

BAT EIÑ: bat egin

BATANA (batanie):Mentha piperita, batana

BATES BE: batez ere "Jente asko etorten da ona, bates be domeketan"

BATIDU: irabiatu

BATU : batu

BATU BANATU: Batu-banandu "Atuen eiabesan orrek batu bananduek"

BAUNTE : zatar, moldegaitz

BAYA : baina

BAYE: Hirina edargitteko bahea

BAYESKO KONTU: baiezko kontu "Zure lagunek ete datos? -Baiesko kontuen geratu sien"

BAYETZ: baietz

BAYETZIEN EGON: baietzean egon "Euki ete abien arek basoik? - Baietzienu"

BE : ere

BEALDE (bealdie) : behekalde

BERANDU : berandu

BE BAI: ere bai

BEDAR (bedarra): belar

BEDAR EBATEILLA: belar ebakitzaille "San Pedruetan etorten sien bedar ebateillak gurera"

BEDAR KORAÑA (bedar koraiñie) : belar kodaina

BEDAR META : belar meta

BEDAR OTZARA (bedar otzarie) : belar otzara

BEDAR PILLO (bedar pillue) : belar pilo

BEDEINKATU: bedeinkatu

BEDEINKASIÑO: bedeinkasiño "Udan ixeten da Urkiolan umien bedeinkasiñue"

BEDERATZI URRUNE: bederatziz urrune. "San Trokas baiño beratziz egun ariñau asten da beratziz urrune"

BEGI (begidxe): begi. "begidxe lusiaue euki gogue baiño", (begia luzeagoa eduki gogo baina), esakera hau ortoduetan jan daitekeena baino gehiago zerbitzean esaten da.

BEGI ARGIDXE EPIÑI (-ri): gogoz ikusi

BEGIERRE (begi errie) : begi ertzak gorrituta euki

BEGIDXE JOTA EUKIÑ: begiz jota eduki

BEGIKO IXEN: begiko izan

BEGI ONA IXEN (-ri): begi ona izan norbaiti; "begi ona dutzet sure semiei".

BEGI ONAS BEITTU: begi onez begiratu; "begi onas beix uste".

BEGIRAKADA (begirakadie) : begirada

BEGIRAKUN (begirakune): begirakuna

BEGIRAKUNA (begirakunie): begirakuna

BEGIRAKUNA BERRIE BOTTA : begirakun haserrea bota

BEGIRAKUNE SIERRIEN BOTTA : zeharka begiratu.

BEGIRE (-ren): zain "Suri begire egon ga ia nos etorriko ete sein edo"

BEGISKO: begizko. Erneguz edo gogoz, begiratz gero, bai abereei, bai pertsoneri egiten zitzairen. Abereei lepuan "txulder" antzerako garauak irtetetzen zieten. Erremedioa Aidxolako edo Elorrioko begisko uren iturriko uraz lepoa igurtzi behar izaten zitzairen. Kortara sartzen zenean inoren ganadua ikustera etzen esan behar "Au ganau edarra" "San Antoniok gorde deidxesela" baino. Pertsonekin gauza bera "Au da umien edarra" esan beharrean "Ume bedeketue" esan behar zen. Ume bati begiskoa eginez gero negarrez hasten omen zen, eta kentzeko gizonaren alkondara jarri behar omen zitzaion.

BEGISKUE BOTTA: begizkoa bota

BEGITTANDU: begitandu

BEGISKO URE: Begiskoa kentzeko ura, abereentzako behintzat.

BEGITTEN ARTU: begitan hartu. "Begitten artu nau bai da estot orrentzako eser ondo eingo.

BEGITTU: begiratu

BEGITXINDOR (begitxindorra) : begitxindor

BEI (beidxe): behi

BEI ESNE (behi esnie) : behi esne

BEINBES: behin ere ez

BEINGO BATEN: behingo baten "Beingo batien urten bier da berien euridxe ein!"

BEINGUEN: behingoan

BEIÑ : behin

BEIÑ EDO BEIÑ: behin edo behin "Beiñ edo beiñ jueten giñen, sarritten es edosemoduten"

BEIÑONESKERO: honezkero, dagoeneko "Berandu da ta, beiñoneskero geratu zaittesie bertan, bidxer juengo seie"

BEITTU : begiratu

BEKOKI (bekokidxe): bekoki

BEKO KUARTUE: beheko gela

BEKONDO (bekondue): betosko; "orre teko bekondue!"

BEKOSU (bekosue) : beheko sua

BELAÑO (belañue): laino

BELARRI (belarridxe): belarri

BELARRIDXEK ANTINYU: belarrietatik tiratu, belarriondokoa eman, umeekin mehatxu gisa.

BELARRIKO MIÑEN BEDAR (belarriko miñen bedarra): belarriko minaren belar

BELARRI MOTZ (belarri motza): kanpotar

BELARRITTEKO (belarrittekue) : belarritako. Zirtrilo

BELATXIÑA (belatxiñie) : belatxinga

BELAUNIKATU: belaunikatu

BELAUN (belaune) : belaun

BELAUNIKO : belauniko

BELETOSO (beletosue) : aldarte aldaketak dituen "Ori be pentzetot beletosue ete dan"

BELIE: bele; beleak gorpuei begiak ateratzen dizkie

BELUN: belaun

BELLEGI (bellegidxe) : beilegi

BENDA (bendie): artoa eiho sari errotariak hartzen zuena.

BENDEJA (bendejie) : bendeja "Sapatuetan Durengora da domeketan Otxandixora jueten giñen bendejie astuen artute"

BENDEJERA (bendejerie) : bendeja saltzen dabilena

BENE BENETAN: bene benetan "Bene benetan diñotzut estuala iñor ikusi"

BENEPEIÑIEN: behinik behin

BENTAJA EIÑ: bentaja egin "Lengo egunetik ona bentaja aundidxe eiñ dau onek ortuek"

BENTANA (bentanie): leiho

BENTZIDU: bentzidu, "pisuek bentzidu eta burdidxek alde batera ein yau

BEÑOLA: behinola

BERAKAS SOPA (berakas sopie): berakatz zopa

BERAKATZ (berakatz) : berakatz

BERAKATZ ATALA: berakatz atal

BERANDU: berandu

BERANDUTU: berandutu

BERASA (berasie): atsegin; "kanta berasie" (kanta atsegina). "leku berasie", (leku atsegina).

BERATU: beheratu

BERATZI URRIÑ: bederatzi urrun

BERBA (berbie): hitz

BERBA EIÑ : hitz egin

BERBAKO (berbakue) : berbako "Berbakue ixen da esan dabena bete eiñ dau orrek"

BERBAKUNA (berbakunie) : berbakuna "Berbakunan be igertzen dxakon nungue san"

BERBA LAGUN IXEN: berba lagun izan

BERBALDI (berbaldidxe) : berbaldi

BERBALEKU (berbalekue) : berba egiteko leku

BERBARO (berbarue) : barbaro "Goixeko bostak sien da ango berbarue!"

BERBATI (berbatidxe) : berbati "Beres be berbatidxe ixen da apur bat edaneskero nok geratu?"

BERBENA BEDAR (berbena bedarra) : Berbena officinalis. Enplastuak egiteko erabiltzen da; arraultza zuringoarekin batera zartangian pasatuz gero trapu baten barruan ipintzen da, batez ere sinusitiaren kontra erabiltzen denez, bekokian jartzen da.

- BERBETA (berbetie) : berbeta "Berbeta samurre badeko beintxet orrek!"
 BERBETAN: berbetan
 BERDATU: 1. berdatu. 2. haserretu "Denporie be berdatu dau te guesan etxera"
 BERDE (berdie): 1.berde. 2. frantses belar
 BERDETU : haserratu
 BERDIE IXEN : haserrekorra izan. Baita lizuna ere.
 BERDULOI (berduloye) : berdeloi
 BERDURA (berdurie): berdura
 BEREGANATU: bereganatu
 BEREGANDU: bereganatu "Laster beregandu daus orrek enparauenak be"
 BEREKUTEN: bere kautan "Berekuten berbetan dabill,arrazalde gustidxen ixildu be esta eiñ!"
 BEREN-BERIEN: apropos behar den lekuan
 BERES: berez
 BERESI (beresidxe): berezi; baso itxia.
 BERESKO (bereskue) : berezko: berezko "Orrek deken grasidxie bereskue da"
 BERNA (bernie): berna
 BERNASUR (bernasurre):berna hezur
 BERNIS (bernixe): barniz
 BERNUTZIK: berna hutsik "Len esiñ iseten geñun elixara bernutzik juen"
 BERO (berue): bero; "sopie ta eskontzie, beruen" esakera.
 BEROALDI (beroaldidxe): beroaldi
 BEROTASUN (berotasune): berotasun "Orrek botaten dau berotasune!"
 BEROTU : berotu
 BEROUNA (berounie): berouna
 BERRO (berrue): Nasturtium officinale
 BERROIDXA: Borago officinalis
 BERSABAI (bersabaidxe) tejabanaren gainean egoten zen sabaia, sabai handia ez zena.

BERTAKOTU: bertakotu “Esta denpora asko etorri dana, baiña au be bertakotu da”

BERTAN BERA: bertan behera “Bertan bera itxi danak da juen da”

BERTZO (bertzue): bertso

BERTZOLARI (bertzolaridxe): bertsolari

BERTZO PAPELA: bertso papera

BERUSKO (beruskue): beherazko

BESANGA: Egur trangal haundia. Arrama sendoa



Arbolan gorantza ikusten
diren arrama sendoak !
BESANGAK

BESASPI (besaspidxe): besape

BESERIDXA (beseridxie): bezeria “Esniekin ibilltten nintxeneko beseridxie oiñ be esetze uas”

BESERO (beserue): bezero

BESO (besue): beso

- BESOUTZIK: beso hutsik
 BESPERA (besperie): bezpera
 BESTALDEKO (bestekaldekue): beste aldeko, auzoa
 BESTE (bestie): beste; "bata ta bestie ta estie", (hau, hori eta bestea)
 BESTELAN: bestela
 BESU (besue): beheko sua
 BESUEK AUMA EINYE: ezer egin barik egoten direnen gainean edo geldoak direnen gainean esaten da
 BESUETAKO (besuetakue): besoetako "Paskuetan besuetakuei mokotze eitten dxakie"
 BETAGIÑ (betagiñe): beheko hagin
 BETE : bete
 BETEKADA (betekadie): betekada
 BETERIK: beterik
 BETERINARIDXO (beterinaridxue): albaiteroa
 BETI : beti
 BETIBE: beti ere
 BETIK: beti
 BETOSKO (betoskue): betosko
 BETOSKO ILLUNE EUKI : betosko egon "Orrek betosko illune deko beres be"
 BETULA (betulie): betule
 BIAMAMA (biamamie): birramoma; "oiñ amama nas eta laster biamama"
 BIAR: behar
 BIERGIÑ (biergiñe) behargin, langile
 BIBEDAR (bibedara): bigarrenez hasten den belar
 BIBOLIÑ (biboliñe): bibolin
 BIBORA (biborie): 1. sugedorri 2. (Bot.) *Viscum album*. Sagarretan eta makatzetan egiten den landare parasittoa. Berba hau Mendiolako lekuko batek emana da. (Ikus "biguri")
 BIDALDI (bidaldixe): ibilaldi; "bidaldi ederra eiñ geñun".
 BIDE (bidie): bide
 BIDE BATES: bide batez "Ekarrixus bide bates gatza ta asukerie"

BIDE ERTZ (bide ertza): bide ertz

BIDEGARRO (bidegarrue): birigarro

BIDER : bider

BIDE SIUR (bide siurre): bide zior "Exetik araiño bide siur bat euen"

BIDXALDU : bialdu

BIDXAMON (bidxamona): biharamon. Aje "Orrek begidxok bi-dxamona dekenena dies"

BIDXAR : bihar

BIDXEN BITTARTIEN: bien bitartean "Su juen da bidxen bittartien, ama etorri da"

BIDXER: bihar

BIDXORTU : bihurtu

BIDXOSKILLA (bidxoskillie): biusturi, biozkillan zerozer geratzen denean, beste leku batzutan "biotz ganean geratu"

BIDXOTZ (bidxotza): bihotz

BIDXOTZEKO: bihotzeko. Bihotzeko gaixotasunari ere "Bidxotzekue euki" esaten zaio.

BIDXOTZERRE (bidxotzerrie): bihotzerre

BIDXUR (bidxurre): 1. oker, bihur "Ume bidxurre basa ba!". 2. arbola arramez eginda sokaren ordez erabiltzen zen, egur txolak eta lotzeko.

BIDXURKADA (bidxurkadie): bihurkada "Atro frontoien ebillela ei aben bidxurkadie"

BIDXURRUNA (bidxurrunie): Bihurruna "Bidiek bidxurrunie eitten daben lekuen topeu geñun txoridxe"

BIDXURTU: bihurtu

BIER (bierra): behar, lan.

BIERBADA: beharbada

BIERBE: behar ere "Denpora ona eitten dau. -Bier be gausen sasoién"

BIERBES: behar ere ez

BIER ESTAN BAT EIÑ: behar ez den bat egin "Kontus ibilli saittes estixun bier estan bat eiñ"

BIERGIÑ (biergiñe): behargin

BIERLEKU (bierlekue):lan asko eman. "Emotostesu bierleku bakotxik!"

- BIERRA EIÑ: behar egin
 BIERRIEN: beharrea
 BIERRIEN LORRIEN EIÑ: lehertzeraino lanean egin
 BIERRIXEN: beharrizan
 BIER IXEN: behar izan
 BIESTUN (biestune): behazun
 BIETZ (bietza): behatz
 BIGUN (bigune): bigun
 BIGUNDU: bigundu
 BIGURA (bigurie): *Viscum album*
 BIGURI (biguridxe): *Viscum album*. Tentsinoa bajatzeko ona da.
 BIJA (bije): bidaia, luzea denean esaten da.
 BIKI (bikidxe): biki
 BIKO EIÑ: beharko egin "Ondiño badau emen ser eiñ da biko eiñ jatie gurebu"
 BIKOTX (bikotxa): 1. bikoitz; "urriñeko intxaurrek die garaun bikotxak". 2. meza hasteko kanpai joaldi
 BILIN-BOLAKA: bira biraka "Bilin bolaka juen da aldatz bera"
 BILLE , -ren : bila
 BILLOTX (billotxa): bildots
 BILLOSİK: biluzik
 BILLOTZ (billotza): bildots
 BILLUR (billurre): bildur
 BILLUR IXEN: bildur izan "Berandu jueten billur san ia e-txien asarre eingo tzien edo"
 BILLURTI (billurtidxe): bildurti
 BILLURTU: bildurtu
 BINKE: bien que, binke "Esan neutzen geidxau es etorteko, ze olakoik estala eitten. -Binke, ta damutu es"
 BIÑEGRE (biñegrie): ozpin
 BIOLIÑ (bioliñe): bibolin
 BIOR (biorra): behorra
 BIOR ARRAN (bior arrana): behor arran

- BIORKA: behorka
BIRBIDXE: birbira "Gona barren gustidxe birbidxes beteta dekosu"
BIRBIKIÑE: birbikina
BIRBIX (birbixe): jantziei erabileraren erabileraz egiten zaizkion hari biru xeheak
BIRBIXTU : birbixak agertu
BIRE (birie): bide
BIRE BATES: bide batez
BIRE BATESKO: bide batezko
BIRE EGON: tarte, distantzia; "senbat bire dau andik ona?".
BIREGARRO (biregarrue): birigarro
BIREKATX (birekatxa): Abereen behatz bitarteko zaurietako haragi ustela
BIRE SENDA (bide sendie): bide zior
BIRI (biridxe): biriki
BIRIBILLE: biribil
BIRIBILYU: biribildu
BIRIGARRO (birigarrue): birigarro
BIRIKI (birikidxe): biriki
BIRO (birue): biro
BIRRINYU : birrindu
BIRRIÑ: birrin "Esixu ogi birriñik lurrera bota"
BIRRITTEN: birritan
BIRROTXA (birrotxie): neskazahar
BIRROTXAU: birrotxatu; "total birrotxaute saus su"
BIRU (birue): biro
BISKOR (biskorra): bizkor
BISKORTU: bizkortu
BISTA (bistie): ikusmena. Ikusmenerako ona ei da Santa Lusidxe deritzon ermitara joatea.
BISTU: biztu landareak baino ez
BITTARTE (bittartie): bitarte
BITTARTIEN: bitartean
BITTIK BAT: bitatik bat

BITXUK: bitzuk; “praka bitzuk darosus?”, “antiju bitzuk dekuas”, “iri bitxukiñ juen da feridxara”.

BITZ (bitze): bits, “bitze daridxola”

BITZUK: bitzuk

BIXAR (bixerra): bizar

BIXARBAKO (bixerbakue): 1. bizarbakoa. 2. gari mota bat

BIXARDUN (bixerdune): 1. bizarduna. 2. gari mota bat.

BIXERRA KENDU: bixarra kendu

BIXEGERA (bixegerie): bisagra

BIXER (bixerra): bizar

BIXERRA KENDU: bixarra kendu

BIXI ALARGUN (bixi alargune): bizi alargun+

BIXIDXEN: bizien

BIXIDXO (bixidxue): bizio

BIXIDXO BEDAR (bixidxo bedarra): Helleborus viridis

BIXIESTURA (bixiesturie): 1. estura. 2. (Adj.) geldi ezina daukana “Egon saittes geldik bisiesturioi alakuoi”

BIXI GOGO: bizi gogo

BIXIGU (bixigue): bixigu

BIXI IXEN : bizi izan

BIXILAGUN (bixi lagune): bizilagun

BIXIMODU (biximodue): bizimodu

BIXIPOS: bizipoza. “surteko eutze besteko bixiposik es euki”. “surteko eutze besteko bixiposik esteko orrek”

BIXITTU: bizitu, sua bizitu.

BIXITZA (bixitzie): bizitza

BIXKER (bixkerra): bizkar

BIXKER ASUR (bixker asurre): bizkar hezur

BIXKOR (bixkorra): bizkor

BIXUTZ (bixutze): Elurraz eta euriaz nahaste haize afontua dabilenean

BOLA (bolie): bola

BOLA LEKU (bola lekue): bolaleku

BOLARI (bolaridxe): bolari

- BOR-BOR: bor bor, onom. "Billurgarridxe san ebeittik odolak bor bor selan urtetotzen"
- BORONDATE (borondatie): borondate
- BORRAGOMA (borragomie): borragoma
- BORTZEGI (bortzegidxe): bortzegi
- BOSA: ahots
- BOS KANTOI: sagar moeta bat
- BOTA (botie): 1. bota. 2. zahato
- BOTAGURA (botagurie): botagura
- BOTAKA: botaka
- BOTA LARRI (bota larridxe): bota larri
- BOTALIEN : bota ahalean; "botalien da euridxe".
- BOTELLA (botellie): boteila
- BOTI BOLEA: boti bolea
- BOTIKA (botokie):1. farmazia. 2. botika
- BOTIÑ (botiñe): botin
- BOYANTE (boyantie): oso ondo dabilena
- BRASA (brasie): txingar
- BRASATZA (brasatzie): brasatza
- BREBE (brebie): labur
- BRIDA (bridie): zaldiekin erabil-tzen den uhela
- BRINGA (bringie): arrakala; "orrek ormiorek bringa galanta deko".
- BRINGADA (bringadie): bringada
- BRINGAU : arrakalatu
- BRINKAU: arrakalatu, urratu
- BRINTZAU: printzatu
- BRONKIE EIÑ: errietan egin
- BRUSE: brusa
- BUELTA (bueltie): buelta
- BUELTA EMON: buelta eman
- BUELTAKA: bueltaka
- BUELTAU: bueltatu "Bostak inguruen juengo ga bedarra bueltetan"
- BUFARDA (bufardie): harria lantzeko tresna, batzuk mailu antzerakoak,

besteak aizkora formadunak, ahoan haginak izaten zituzten.

BULAR (bularra): bular

BULARRETIKO: bularretako

BULTZA EIÑ : bultzatu

BULTZEKADA (bultzekadie) bultzakada "Orrek artu daben bultzekadias esta mire eittekue lurrera jaustie"

BULTZEU: bultzatu

BURDI (burdidxe: gurdi

BURDIÑ (burdiñie): burdin

BURDINARA (Burdiñarie): Soloa lantzekoa, astoekin txikiagoa, behiekin haundiagoa gidetzen dena.




ASTO BURDIÑARIE
Baranda bias

BURDIÑESKO (burdiñeskue): burdinazko

BURDI BIRE (burdi birie): burdibide "Lenau oiñ bidiek eta burdi biriek egoten sien"

BURDI BOLANTE (burdi bolantie): gurdi bolante. Gurdi haundia ira, belarra etab. garraiatzeko.




BURDI BOLANTIEN TXIRRIÑAK

BURDI LOTU (burdi lotue): gurdi lotu. Gurdi txikia, egurra, harria etab. garraiatzeko, honek gurpilak ardatzari lotuta dauzka, horregatik "lotue", ibiltzerakoan ere "krin kran" egiten omen du.

BURDIÑ (burdiñie): burdina

BURDIÑARA (burdiñarie): kakarraldo. "Burdiñarias lurra gidxetan da". Burdiñare moeta bi daude: Behi burdiñara eta Asto burdiñara. Behi burdiñara haundia da. Asto burdiñara txikia. Honaz "Arta burdiñaketa" "Jorra burdiñaketa" egiten dira beste batzuen artien.



BURDIÑARIE

1. - Ganekaldean ESKUTIÑAK
2. - Azpikaldean BURDIÑARA ORTZAK
3. - Trabesetara dauden egurrak BURDIÑARA SUBILLEK
4. - Luzetara dagoena BURTEUNE

BURDIÑASKO (burdiñaskue): burdinazko

BURDIÑERIDXA (burdiñeridxe): burdinazko egitura


BURDIOLA : kartola

BURDUNTXI (burduntxidxe): burduntxi

BURDUNTZI (burduntzidxe): burduntxi

BURKADA (burkadie): gurtada "Urtero amarren bat burkada ira ekarten geñusen"

BURKAMA (burkamie): gurkama



BURKAMA OSUE
1. - Luzetara BURTEUNE
2. - Burteunien ATZEKO LARAKUE
3. - Kaman ERREILLAK

BURLE EIÑ: burla egin "Ixillik es pasaus burle eingo tzue orrek"

BURLES: burlaz "Espaiye burles esan ori"

BURPILLE: Busterrak erdi inguruan edukitzen du eriekin egindako zulo bat, hori da burpille.

BURRUKA (burrukie): borroka

BURRUKALARI (burrukalaridxe): burrukalarari

BURRUKAN: burrukan

BURRUKAN EIÑ: burrukan egin

BURRUNDARA (Burrunda-rie): burrundara "Orrek kotxiorrek ataraten dxok burrundarie"

BURRUSKANKA: buruzganka; "osuen burruskanka jausi nas".

BURSALDI (bursaldidxe): burzaldi

BURTALDAMENA : Gurdiaren aldamena

BURTERA (burterie): burtede

BURTETZA : ardatza

BURTEUNE : partikoa

BURU (burue): buru

BURUAUSTE (buruaustie): buru hauste "Esixu olako buruausteik artu, beste batzuk pe olako gausak eius ta"

BURU BIRIBILLE: hiltze moeta bat

BURUDUN (burudune): burudun

BURU EIÑ: -rena egin, -tekoa egin; "orrek lelo buru eitten dxok, baya listue ok".

BURUEI ITXITTE PARAU: uzkur egon, gogogeturik egon

BURU GORRI (buru goridxe): ilegorri

BURU KANTZASIÑO (buru kan-tzasiño): buru neke "Olako gausak buruei kantzasiñue ekartotzie"

BURUKO: Buruaz hartzen den kolpea, norberak hartuta edo beste batek emanda " au da burukue artu duana"

BURUKO KOROI (buruko koroye): buruko koroa

BURU PLANUE: hiltze moeta bat

BURUKO PAÑUELUE: buruko zapia "Oin banaka batek erueten dau buruko pañelue"

BURUKO SORKI (buruko sorkidxe): buruko sorki, zamak eta eroateko erabiltzen zen sorki

BURUS AURRE: buruz behera "Burus aurre juen da lurrera"

BURUS BERA: buruz behera

BURUSKANKA: txirinbuelbaka

BURU SURI (buru suridxe): ile zuri

BURU SURITTU: buru zuritu

BURUTANTZIÑO (burutantziñue): burutazio

BURUTU: landareak burutu, ez beste ezer; "laster burutuko die orrek asok", (laster burutuko dira horrek azok)


BURU UTZIK: buru hutsik "Kenduxu txapela ta juen seittes buru utzik"

BUSKENTZ (buskentza): buzkentz, odoloste sendoa

BUSTEN (bustena): buztan

BUSTENIKERA (bustenikerie): buztanikara, epertikara, txori moeta bat

BUSTERRI (busterridxe): uztarri



BUSTERRIDXE

1. - Busterridxen agertzen diren ugelak ERIAK
2. - Erdiko ugela BUSTERIE
3. - Bihekaldean LARAKO eta SAPA biñe.

BUSTERTU: uztartu

BUSTI : busti

BUSTIALDI (bustialdidxe): bustialdi "Aselako busti aldidxe artu daben kanpuek pel!"

BUSTI LUR (busti lurre): lur heze

BUSTIÑ (bustiñe): buztin

BUSTIÑ LURRE: Lur moeta. Laborantzarako astuna. Topinak, lapikoak etab egiteko. Abadiñon Telleridxa aldean ere badago.

BUTROI (butroye): arrantzuan egiteko bahe

D

DAMU (aamue): damu "Ariñau etorri esen damue deket"

DAMUTU : damutu

DAN (dana): dan

DANAK ASKO: Betekizun guztiak burutzen direnean. "Danak asku eiot"

DANGA DANGA: tiruen onomatopeia

DANGA DANGA BOTA: arridkek danga danga bota, jarraian geratu barik

"Goix gustidxen danga danga tiroka dabis"

DANTZARI (dantzaridxe): dantzari

DARDARA (dardarie): dardara

DARDARA Eñ: dardara egin

DARDARAKA: dardaraka "Otzaz dardaraka etorri da"

DEBALDE: dohan

DEBEKATU: debekatu

DEBILL (debille): ahul

DEFENDIDU: defendatu

DEIDXON (deidxonak): ezkontzetako amonestazioak.

DEIDXONAK BOTA : deionak bota "Elisan suen deidxonak bota dabies"

DEIDXONETAN IBILLI : deionetan ibili

DEIDXONAK IRAGARRI: deionak iragarri "Suen deidxonak iragarri dabies gaur"

DEIDXUN (deidxune): ezkontzetako amonestazioak

DEIKE: deika "Suei deike ibilli ga da itxurie estosue eser entzun"

DEITU : deitu

DEJA (deje): hegia, leihoarena kasu baterako "Kurloi lotzabakuek bentana dejan euen arroskoletxien untzitik jate aben"

DEMANDA (demandie): iskanbila

DEMANDA Eñ: iskanbila egin

DEMANDAN IBILLI : iskanbilan ibili "Konponduko ete saie arratzalde osuen demandan sabixie"

DENDA (dendie): denda

DENDARI (dendaridxe): dendari

DENDERO (denderue): dendari
 DENGANIÑO (denganilue): zital, demonino
 DENPORA (denporie) : 1. denbora 2. eguraldi
 DENPORA ODEIDXE: Eguraldi sargoria, zeruan trumoi lainoak ageri direlarik
 DENPORA PARDUE: eguraldi eskasa, iluna.
 DENPORAS: sasoiz
 DERDITXIE: kantidade handia "Patatie aurten derdixie altzau u"
 DERREPENTE: bapatean
 DERRIGOR: derrigor "Derrigor juen biuala esaostie"
 DERRIGORRA: Derrigorra "Derrigorrak gausa asko erakusten daus"
 DESBARDIÑ (desbardiñe): desberdin
 DESENTE: nahiko "Jentie desente egon da"
 DESIETAN EGON: irrikan egon "Nuunora jueteko desietan nau"
 DESIGAU: desiratu
 DESKANTZAU: deskantsatu
 DESKANTZU: deskantsu
 DESKORRIDXAU : konortea galdu edo gal erazi
 DESKUIDAU: deskuidatu
 DESKUIDU (deskuidue): deskuidu
 DESOSEGAU: desosegatu
 DESPEDIDU: agurtu
 DESTARTALAMENTU (Destartalamentu): destartalamendu
 DESTRAIÑA (destraiñie): destain "Olako destraiñaik etxako eitten lagun bati"
 DIABRU (diabruie): diabru
 DIAR (diarra): deadar
 DIAR EIÑ : deitu
 DIARE KANPO: ezkon bidaia "Guk egun biko diare kanpue eiñ geñun da Donostiara juen giñen"
 DIARKA: dearka
 DIARRES: deiez
 DIDA EIÑ: golpea adierazteko "Eldu agiñei da dida alde batera ta bestera

eiñ dde atara otzen
 "DIFERENTE (diferentie): Des-berdin
 DIFERENTZI (diferentzidxe): desberdintasun
 DINDILISKE: dindilizka "Ari bat daruosu gona barrenien dindiliske"
 DINDIRRI (dindirridxe): pilda, zarpa
 DINGI DANGALA: dindilizka dagoenaren onomatopeia
 DINGILI TA DANGALA: dindilizka dagoenaren onomatopeia
 DINGILISKE: dindilizka
 DINYILISKE: dindilizka
 DIRETORE (diretorie): zuzendari
 DIRU (dirue): diru
 DIRUDUN (dirudune): dirudun
 DIRUGURA: dirugura "Orren diruguriek esteko askenik"
 DIRUSALE (dirusalie): diruzale "Dana bes baña apur bat dirusalie ixen bida"
 DIRUSALETU: diruzaletu
 DIRUTZA (dirutzie): dirutza "Ango dirutziei esin lidxako antzik emon bakixu ala senbat dekien orrek!"
 DISIENBRE (disienbrie): abendu
 DISIPULA: surtzihoetan agertzen diren puslak. Eskuetan eta aurpegian ere ager daitezke. Disipulak kentzeko bide bat hau omen zen: Disipuladunak larrosa bati zegoen lekutik ebatu behar zion kirtenetik eta beste batek handik moztu, gero larrosa hura nonbaiten eskegi egiten zen, eta larrosa siketu orduko disipula joan egiten zen.
 DOBLAU: tolestu
 DOMEKA (domekie): igandea
 DOMINISTIKU (doministikue): da-mistikua
 DOMINISTIKU EIÑ: damistikua egin
 DOMINISTIKUN (doministikune): Damistikua
 DOMINISTIKUN EIÑ: damistikua egin "Estakitt pa buruko kargie artu estosun doministikun askotxo eitten sabix"
 DOMIÑA (domiñie): domina
 DOMU SANTU: domu santu

DONGA (dongie): deunga "Is donga ta dantza sikiñak erre daigusan betiko.

DONTZELLIE: dontzeila

DONIEL ATXA: Herri edo auzune jai besperan jartzen den arbola, orain txopoa deitzen dioguna.

DONTZU (dontzue): zorioneko

DOÑU (doñue): doinu

DOTORE (dotorie): dotore "Etxie dekosue dotorie suek"

DOTRIÑA (dotriñie): doktrina. Ta doktrina ikasten joateari "Sapatu arratzaldetan dotriñara jueten giñen"

DRAGA (dragie): galga

DRAGAU: galgatu; "miñe dragaute euki", (mihia trabatuta eduki)

DRANGA DRANGA: Onom. Eztulka gertu gabe ibiltzeari "Gau osoen ibilli da dranga dranga estulke"

DRILL (drille): ehun moeta bat, aspaldi jakak egiteko erabiltzen zena.

DRINGI DRANGA: Onom. Alde batera eta bestera dabilen tresnak egiten du, Ariak, trikitrakiek. etab.

DROGA (drogie): bihurrikeria "Drogasaliek dies orrek beti baten bati barre eitteko prest"

DROGAN: drogan "Arratzalde gustidxen drogan sabixie da neikue da"

DROGERO (drogerue): dendari

DROGOSO: bihurri, umeei esaten zaie batez ere.

DUAN: dohain

DUAN IBILI: dohan ibili

DULTZAINA (dultxzeiñie): Dul-tzaina

DULTZE (Dultzie): gozo "Beti ixen da dultzesalie ori"

DULTZESALE (dultzesalie): go-zozale

DUNBA (dunbie): joare handia

DUNDURIDXA (dunduridxie): durunbada, belarrietan min egiten du "Amateixu radidxo sar ori ataraten daben dunduridxas burue aundi aundi eiñdde deket eta"

DUNDURIDXO (dunduridxue): durunbada

DURDULA (durdulie): durdura

DURDURA (durdurie) : durdura

E

EBAI: 1. ebaki. (ikus "ebei"). 2. ebaki, zauria. Ebakietarako "ebai bedar" deritzona erabiltzen da; sutan ipinita gain azala kentzen zaio eta zauri solduaren gainean ipintzen da.

EBAI BEDAR (ebai bedarra): ebagi belar. Berotan, txapan ipinita, orrian daukan gain azaltxoak kendu egiten zaio eta horrela zauriaren gainean ipintzen da, zauri solduetarako sano ona ei da.

EBAITZAILLA (ebakitzaille): ebakitzaille

EBALI : 1. erabili; "ba arek orduen a esbaidxe ebali dxa-bian", "selako eustabarra ebali dxuan", "tanbolintteru ebali bi geittue", "an ebali dabie txilidxo ta garrasidxe". 2. izan; "epoka bat ebali dxabian, egunien-egunien kasan jueten suasen", "selako burrukie ebali oten buruen, su urlidxe ete siñen igerri esiñik",

EBATU: oratu; "ebatiok orri!",

EBATZI: ebatzi

EBEI: ebaki

EBERDI (eberdidxe): eguerdi

EBERDI AURRIE: Eguerdia atea "Ointxe eberdi aurretuen etorri dies"

ÉDADE (edadie): adin

EDAN: edan

EDARGITTU: iirina "bayean" pasatzeari. ERALGITTU ere.

EDARGURA (edargurie): Egardia "Arek dxekuan edargurie"

EDARI (edaridxe): edari

EDARRA (edarrie): errada. Metalezko ontzia behean zabala, gorago estuagoa, esnea eta urentzako

EDARRA PALU (edarra palue): Makilla luzea, punta bietan deia bana edukitzen zuen, bakoitzean, hartu makila sorburuan, eta edarra bana eramateko, artzainak ardi esnea garraiatzeko edo iturrutik ura ekartzeko.

EDAN TXARREKO: edan txarreko "Kontus ibilli adi orrekin edan txarrekuek dosak ta bier estanen bat eiñ estixuen be"

EDER (ederra): eder

EDER EIÑ: Erreguke ibiltzeari ondo geratzeko ahaleginak egiten, mesederen bat lortzeko edo begi ones ikusteko.

EDERTASUN (edertasune): eder-tasun

EDERTO: ederto "Ederto ei otzen, urrengokuen ikesi deixela"

EDUR (edurre): elur

EDUR BATU (edur batue): edur batu. Haizearen eraginez edurra pilatzen denean.

EDUR IXEN: edur izan

EDUR KASALA: elurrak zuritukoa, "edur gesala" ere esaten da.

EDUR KASALA EIÑ: elurrak zuritu

EDUR KIDXIDX: Elurra abiatzerakoan jausten den elur seia eta urria.

EDUR KIXMAK: Elur gutxi jausten denean, jausterakoan, behean dagoenean "kasala"

EDUR MALUTA: elur maluta

EDUR MATASA: elur maluta

EDURTZA (edurtzie): elurtza

EDUR UR: elur busti

EFEKTUEK EIÑ: zerbait lortzeko egundokoak egin; "efektuek ein yuas su topetako".

EGABERA: egabera

EGAL (egala): hegal "Urdei egala botaten dxakien babai"

EGARRI (egarridxe): egarri

EGARRI IXEN: egarri izan

EGARRIDXAS EGON: egarriz e-gon

EGARRIDXAS ITTOTA EGON: egarriz itota egon

EGARRIDXE ILL: egarria hil, apur bat edanda egarria hil egiten da

EGARRITTU: egarritu

EGAS EIÑ: hegaz egin

EGASKALDI (egaskaldidxe): hegazkaldi "Txorikumak abidxatin urten barritten egaskaldidxek eiñ da lurrien geratzen sien"

- EGASTI (egastidxe): hagazti
 EGI (egidxe): egi
 EGIÑAN: ozta, doi; "egiñan arrapau ot autobuse".
 EGIÑAN-EGIÑAN : ozta-ozta
 EGO (egue): hego, hegaztiena
 EGO AIXE (ego aixie): hego haize
 EGOGI: egoki "Leku egogidxe topeu geñunan egun gustidxen keixpetan, bape beroi pasau barik egon gentxunasen"
 EGOKARRI (egokarridxe): sosegu; "onek umionek iñun be esteko egokarriik", (honek ume honek inon ere ez dauka egokarririk)
 EGOKERA (egokerie): egokera "Ire egokeriei kaka eitte otxenat, jarri tte ortxe egon... eser ein barik"
 E(G)ON: egon
 EGOSI: 1. egosi. 2. lehiak landareak egosi ere egiten ditu
 EGOSTU: beroaren beroaz bernak eta egostu egiten dira
 EGOTALDI (egotaldidxe): egotaldi "Pausu batzuk eñ da egotalditxo bat eitteban, itxurie kantzau edo"
 EGUASTEN (eguastena): asteazken
 EGUEN (eguen): ostegun
 EGUEN SANTU (eguen santue): eguen santu, ostegun guren
 EGUEN SURI: eguen zuri. Egun honetan eskola umæk eguen suri kantatuz diru eskatzen joaten diran
 EGUN (egune): egun; "egunokas es aut ikusi", (egunokin ez haut ikusi).
 EGUNDO: egundo, sekula
 EGUNDOKO ARIÑEN: egundoko arinen "Egundoko ariñen etorri as gaur bierrtetik"
 EGUNERO: egunero
 EGUNES: egunez
 EGUNE SABALDU: eguna zabaldu "Berandu sabaldu dau gaur egune"
 EGUNIEN EGUNIEN: egunean egunean, egunero
 EGUNON : egun on
 EGUNSENTI (egunsentidxe): e-gunsenti
 EGUNTABARRA: Egunsentia

EGUR (egurre): egur

EGURALDI (eguraldidxe): eguraldi "Eguraldi kaskarra eitten dau gaur iñora jueteko"

EGUR BRINTXA (egur brintxie): egur brintxa

EGURGIÑ (egurgigne): egurgin

EGURRESKO (egurreskue): egurrezko

EGUR IKETZ: egur ikatz, txondorretan egindakoa.

EGUR MUKUR (egur mukurre): abarrak sortzen diren guneko edo ingurutxuko egurra, sano gogorra eta korapilotsua.

EIDXO(TU): eho "Urune errotara erueten san eidxoten"

Eiñ: egin. Ondo eiñ dxako (-ri); "multie kendu tzie? Ba ondo eiñ dxako" Ser eiñ dxako (-ri); "emen egon dan liburue, ser eiñdxako?"

EITTAMU (eittamue): gauza baten egitura, egikera; "eittamu diferenteko sapatak die orrek".

EJE (Ejie): ardatz

EKARRI : 1. ekarri. 2 (ekarridxe). Hitz egiterako erreztasunari. "Orrek dxekek ekarridxe"

EKIDXERA: ekiera

EKIÑ: ekin

EKIÑALDI: ekinaldi

EKONOMIKA: ekonomika, sute moeta bat

ELAI (elaye): elai

ELBITXE: artilezko jertseak eta soltatzan duten lumetxa antzekoa

ELDU : 1. ondu 2. oratu.

ELEGANTE (elegantie): dotore

ELEIXA (eleidxie): eliza

ELEIXAKO (eleixakue): eleizako.

ELEIXAR: eleizar

ELEIXATIKO (eleixatikue): eleiztar

ELEJIDU : aukeratu

ELESTUN (elestune): eraztun

ELGORRI (elgorridxe): elgorri

ELIXA : eleiza

ELISKIXUN (eliskixune): elizkizun

ELORRI (elorridxe): crataegus manogyna. San Juan eguneko goizean berau edo "leixar" abar bat aizkoraz ebaki egiten zen, gurutzea eginda lorekin batera etxeko atalburuan ipintzen zen zerozer errezatzen den artean.

ELORRI ARANTZA (elorri aran-tzie): elorri arantza

ELTXO (eltxue): eltxo

EME (emie): eme

EMENDIDXAU: on egin; "ta-bakuek emendidxaukau!".

EMENDIXO (emendixue): 1. hornidura; "au da emendixue dekune, senbat gausa!". 2. etekin, onura; "niretako emendixue esta ori", "tabakuek emongue iri emendixue", "orrek dxekkek emendixue!", "emendixo bako gausie".

EMOI (emoidxe): isurkari baten jariora "Belarridxek emoidxe emote otzien ta larri ibilltten san"

EMOKAI: emateko edo saltzeko dagoen gauza; "emokai daus gure letxugak"

EMON: 1. eman. 2. (-ra/-an) emon, izatera jo, heldu; "a listue ixengo san, baya askenien surtidorien emon dau"

ENANU (enanue): nano

ENBAJADA (ebajadie): enbajada

ENBARASU (enbarasue): enbarazu, traba

ENBARASU EIÑ: enbarazu egin, traba egin "Gureu neuke patela ortik kenduko baseunke, enbarasu eitte oste ta"

ENBARASUTIK KENDU: enbarazotik kendu "Kendixek orrek ankok enbarasutik"

ENBRA (enbrie): emakume

ENBRASKO (enbraskue): emakumezko

ENBUDO (enbudue): enbuto

ENDEKA (endekie): landareak ahul, indarge

ENDEKATU : landareak ahuldu, indargetu.

ENE!: enel

ENERO (enerue): urtarril

ENKANTAU: enkantatu
 ENPAGU (enpague): enpagu, antoju
 ENPARAU: enparau, gainerako "Gu etorri ga ta enparauek pe laster etorriko dies"
 ENPLASTU (enplastue): enplastu
 ENPLIAU: erabili
 ENREDAU: 1 laskitu "Egon saittes geldik, bastar gustidxe enredau biosus". 2 Burutik eginda egon: "Enredaute dabillenetik, etxien bakeik pe esteku"
 ENSEGIDA: laster
 ENTERRAU: ehortzi
 ENTIERRUE: entierroa
 ENTRAMA (entramie): jateko gogo handia "Onek deken entramias laster jango leukes emen dausen gustidxe"
 ENTRAMADORA: entramadora, arotzen erreminta
 ENTRAMADUN: jatun ona
 ENTRESAKA (entresakie): entresaka
 ENTRONADORA: entronadora, arotzen erreminta
 ENTZUN : entzun
 EPAJADA (epajadie): Gana-duarentzako jana, erremolatxa egosia, sai edo hirinaz nahastuta.
 EPATITISA: gibleko gaixotasuna; "uste edo usta bedar" deritzon landarearen sustraiak egosita ona ei da kentzeko
 EPE: epe
 EPEL (epela): epel "Personiek bixitasun geidxau bidxok aiñepelaixen bierrien"
 EPELDU: epeldu
 EPER (eperra): eper
 EPER TXAKUR (eper txakurre): eper txakur
 EPERDI (eperdidxe): 1. ipurdia. 2. arbola botaz gero lurrean geratzen den zatia.
 EPERDIDXAS GORA: eper diz gora "Laban ei aben da jausi san eper dixas gora"

EPERDIDXE BISTAN: ipurdia bistan
 EPERDI ESTU EUKI: ipurdi estu euki
 EPERDI GARBITZAILLA (eperdi garbitzeillie): ipurdi garbitzaile "Es ai eperdi garbitzeillie ixen, euk ser gure uan agiri agiridxe deklaretok ta"
 EPERDIKO (eperdikue): eperdiko
 EPERDI SULO (eperdi sulue): ipurtzulo
 EPER TXUNTXUR (eper txuntxurre): eperdiko hazur "Joten baut eper txuntxurrien, lelokeridxe kenduko dxatas"
 EPETARGI (epetargidxe): ipurtargi
 EPIÑI : ipini
 ERA (erie): 1. alde (jantzieta batez ere); "erie ta itzulidxe", (era eta itzulia). "eretara ta itzulidxetara josi", (eratara eta itzultara josi, alde bietatik josi, barrutik eta kanpotik). 2. hede, gurdian uztarria lotzeko erabiltzen dena. 3. era, modu, molde. 4. eskura; "eras eras euki", (eskura euki). "eras eras dekok or aparketako", (eraz eraz daukak hor aparkatzeko).
 ERABAGI: erabaki
 ERABAGIDXE: Erabakia. "Artu erabagidxe laster, es gosan bidxer goixerarte emen egongo ta"
 ERAIÑ: eragin
 ERAKERA (erakerie): edari batek edatean uzten duen gozoa; "onek ardaunek erre paino erakeraobie".
 ERAKUTZI: erakutsi
 ERALGI: galbaratu, "urune bayen eralgi eitten da", (irina bahean eralgi egiten da)
 ERAN : edan. "siridxe moduen eran", "eran txarrekue ixen"
 ERANTZI: erantzi
 ERANTZUN: erantzun
 ERAS: eraz
 ERAS-ERAS: eraz-eraz "Gaurko bijie eras eras dxatorku"
 ERASO (erasue): 1 gorputzean eten, ebaindura edo minen bat egin edo hartu. 2. Norbaiti kalte egin.
 ERASO EIÑ: eraso egin
 ERASO EUKI: eraso euki

ERASTUN (erastune): erastun

ERATZI: 1. urratu; "arkondarie eratzi", "arrama bat eratzi", "txakur batek beste bat burrukan eratzitte itxi dau" 2. gartzainak arbolatik ere eratzi egiten dira batzean

ERAUTZI: ganadua jatsi

ERBESTEKO (erbestekue): erbesteko "Jaidxetan erbesteko asko etortzen san"

ERBI (erbidxe): erbi

ERDILDUN (erdaldune): erdaldun

ERDERA (erderie): erdara

ERDELDUN (erdeldun): erdaldun "Erdeldune san ta es geuntzen gausa aundirak aitzin"

ERDI (erdidxe): erdi

ERDIBITU: erdibitu

ERDI ERDIXEN: erdi erdian "Ekarri osune erdi erdidxen itxi tte nora soyes?"

ERDIKIÑ: erdia, kasu baterako "sagar erdikiñ"

ERDI MERKE : prezio erdian saldu edo erosi

ERDISPORDIS: erdizperdiz "Atzo-ko afaidxe erdispordis eiñ geñun"

ERDU: erdu "Erdi agudo ona gausa bat deket suretzako ta"

ERE (erie): hede; gurdian burteuna edo pertika uztarrian lotzeko ugelak.

EREIXONTZA: Laurus nobilis. Leixiba egiten zenean erropari usain gozoa emateko erabiltzen zen behin errautsa botaz gero. Erramuarekin batera bedeinkatuta eta gurutzea eginda etxean ipintzen da.

EREIÑ : erain

EREIÑARO (ereiñarue): eraiteko haro aproposa

EREIÑONTZA (ereiñontzie): Lau-rus nobilis, landare moeta


ERESTALGI (erestalgidxe): uztarri gaineko ardi larruzko estalgia.

ERETARA JANTZI: eretara jantzi "Itxulidxetara dekosu, ta jantzixu eretara arkondarie"

ERETXI: eritzo

EREIXIDXE: Pertsona harroa. "Ori be ixen estakitt ser ixengo dan baiña ereixidxe bada bein-txet"

ERIAK: Ikusi ERE
ERIDXO (eridxue): jario
ERIDXOTZA (eridxotzie): heriotz
ERIDXONTZA (eridxontzie): ereinotza



ERIDXONTZIE, eta behetik gora
igoten diona ARKASATZA

ERITXI (eritxidxe): eritzi; "orrek eritxidzek dies", (horiek eritziak dira).
ERKIÑ (erkiñe): ahul "Ume erkiñ erkiñ bat san da beittu selako mutille eiñ
ddan"
ERLAMIÑO (erlamiñue): kurubio
ERLATOKI (erlatokidxe): erlatoki
ERLAUNTZI (erlauntzidxe): erlauntza
ERLE (erlie): erle
ERLOJU (erlojue); erloju
ERMITTA (ermittie): baseliza
ERNARI: ernari
ERNE: 1.erne (landareak) (Adi.). 2.erne (ernie) (Ize.); "ernie emon dabie
landarak", (ernea eman duten landareak)

ERNEGAGARRI: ernegagarri
 ERNEGAU: ernegatu
 ERNEGETAN : ernegatzen
 ERNEGU: ernegu
 ERNEGUE EUKIñ: ernegua euki
 ERNIEK: erne, ernakatza
 ERO : edo
 EROMAI (eromaidxe): azpira
 EROSI : erosi
 EROSO (erosue): eroso
 ERPE (eperdidxe): erpe
 ERPEKA: erpeka "Nok esango aben katuek ari erpeka ein bio-tzenik!"
 ERPEKA EIÑ: urratu
 ERPOI: espoloi, txakurrenak
 ERRAIDXA (erraidxie): erraia, marra
 ERRAIDXADUN: marradun
 ERRAILL (erraillek): aldamen batetik bestera zeharretara dauden makilak gurdi kama egiteko, berauen gainean azpi olak paratzen ziren satsa eroateko.
 ERRAKUNTZA: errakuntza
 ERRALDE: erralde
 ERRAMA (erramie): abar
 ERREMU (erremue): erramu; erramu egunean bedeinkatu eta urte osorako gordetzen da, umeek gurutzeak eginda eroaten dituzte etxeetara gero soloetan ipintzeko
 ERREMU EGUN (erremu egune): erramu egun
 ERRAPE (errpaie): errape
 ERRAS : erraz
 ERRASIÑAMENTU (Errasiña-mentue): arrazionamendu
 ERRASTU: errastu
 ERRAUS (errause): ardiei buruz mintzatzean ahul
 ERRE : erre
 ERREBUelta (errebueltie): bihurra, bihurgune

ERREFUJIDXU (errefujidxue): artrepe
 ERREGALDARA (erregaldarie): gaztainak eta erretzeko galdara
 ERREGAU: ura egin
 ERREGE (erregie): errege
 ERREGENAK: errege egunen inguruko sasoiak
 ERREGEN EGUN (Erregen egu-ne): erregen egun
 ERREGIÑA (erregiñie): erregina
 ERREGIÑATXO (erregiñatxue): erreginatxo
 ERREGUKE: erreguka
 ERREGULAR: antza denez "Kan-potarrak ei sien erregular da es abien eser aitxen"
 ERREGUSTO: erregustu "Onak lapikokuonek erre gustue deko"
 ERREGUTU: erregutu
 ERREIÑETA (erreiñetie): sagar moeta bat
 ERREN (errena): errain
 ERRENGETI (errengetidxe): erraingei
 ERREKA (errekie): erreka, ibaia
 ERREKAU EIÑ: 1. erosketak egin. 2. ezkontzetan bitartekariak egiten duen beharra. "Aixas eskontzeko errekaue ei otzien"
 ERREKAUETAN JUEN: erosketetan joan
 ERREKOLTZU (errekoltzue): Au-rreztu, gorde. "Emendik errekoltzue ein biku dana gastau barik" "Erliet pe negureko errekoltzue eitten dabix"
 ERREMANGAU: erremangatu
 ERREMATA: inkante; "egur erremata" "ire erremata" "Egur erremata San Blas jai ostien eitten san" "Ire erremata agostuen askeneko egunien eitten san"
 ERREMATXE (errematxie): errematxe, lapikoak zulatzen zirenean zulo parean berotu eta iltze bat sartu ta kanpokaldetik ta barrukaldetik jo eta berotasunaz, zuloa estaltzen zitzaion, hori da errematxa kasu baten. Forjako lana beroaz eranskinak jartzea.
 ERREMESA (erremesie): erremesa

ERREMENDARIE: baserritarrek osatuko elkartea; behiren bat istripuz hilez gero lau zati egiten ziren, inkantean saldu egiten zen. Zatiren bat hortuz gero "sesiñe" egiten zen.

ERREMENTARI (errementaridxe): errementari

ERREMENTAU: lehertu

ERREMINTTA (erreminttie): erre-minta, lanabes

ERREMOLATXA (erremolatxie): erremolatxa. Erremolatxetan hiru moeta dagoz: gorri, hori eta kollo berde.

ERREMUNDADE (erremun-dadie): erremandade

ERRENA : erraina

ERRENTA (errentie): errenta

ERRENTADORE (errentadorie): errentadore "Etxie bi abiela da errentadoreiek bieldu abiesan"

ERREPARAU: konturatu "Emen sausienik erreparau be estot eiñ"

ERREPARU (erreparue): Ardura, lotsa "Erreparue emote oste ori esatiek pe ta estakitt ser eiñ"

ERREPASAU: 1. errepasatu jantziak. 2. berriz ikusi

ERREPASU (errepasue): errepasso erropetan "Onixok galtzok be errepasso premiñie badekie"

ERREPOLLOTU: ortuarietan erre-piloa bota

ERRESAIDXO BEDAR (Erresai-dxo bedarra): Arrhenatherum elatius, errosario belar; belar parasittoa.

ERRESAU: otoitz egin

ERRESELUE EUKI: mesfidantza euki

ERRESKADA (erreskadie): errezkada, "lau neska erreskadan, gero danak mutillek jaxo sien", (lau neska errezkadan, gero danak mutillak jaio ziren)

ERRESOI: arrazoi "Estekosue erresorik ta egon saittesie ixilik"

ERRESULTAU (Erresultaue): e-maitza

ERRESPETU (errespetue): begirune

ERRESTASUN (errestasune): e-rraztasun

ERRETA EGON: Orain egoera asko adierazteko erabiltzen da, baina lehenago kanpoko andrekin hartzen ziren gaixoeekin jota zegonari deitzeko

erabiltzen zen. "Ori be ibilli ok, baya oiñ erreta dxak"

ERRETEILLIE EIÑ: erreteila egin "Suen teillatuek erreteillie eiñ barridxe deko"

ERRETEL (erretela): arrantzarako erretela

ERRETEN (erretena): soloetan ubideetan lurrez egiten diren uharkatxoak.

ERRETOLIKA (erretolikie): erretolika "Arek bota osku erretolikie!"

ERRETRATAU: argazkia egin

ERRETRATU (erretratue): argazki

ERRETURA (erreturie): erretura, soloan erretzen diren ondarrak

ERRETXIÑ (erretxiñie): erretxin

ERREUMA BEDAR (erreuma bedarra): Agave americana. Erreuma edo unorea kentzeko ona da; paper batetan zulo batzu eginda belarra ipintzen da minberatuko lekuan, bertan gorriune batzu egiten dira eta kristala balitz lako jariaketa jazotzen da egun batzutan. Kukurruku ez tula kentzeko ona da; ebaki eta ostean gaueko freskuran uzten da eta biharamonean berak botako ura edan egin behar da. Bestalde, igartu eta ostean, soloan dagoela, dauzkan arantzez pintxatuz gero kaltegarria izaten da, izan ere, kalentura eragiten du.

ERRI (erridxe): herri

ERRIEL (erriela): erreal "Amar erriel balidxo abesan orrek orduen"

ERRIKOTU: herrikotu

ERRIME (erremie): gogortasun, indar, ozen; "epinixu errimiau telebisiñue".

ERRO: erro

ERROBATIBA (errogatibie): errogatiba

ERROMADA (erromadie): erromara; bideak ixteko egurrez egiten den itxitura.

ERROMERIDXE: erromeria

ERROMERUE: erromeroa. Be-deinkatuta eta gurutzeta eginda etxean ipintzen da ereinontzarekin batera.

ERRONDA (errondie): gauez mutilek egiten zituzten irteerak, batez ere Gabon Zaharretan, gurdiak burtenetik soloan sartuta uzten, eta antzerako gauzetan pasatzen zuten denbora. "Da beste baten ei abien Mendiolako mutillek, eh...or Martzan euki abien tabernie ta sera ta, Mendiolatik juntau dies, ba gure etxetik be iru anaidxa, sarrak aitte ta, Andres Olondoko, Jose Untzille, Pedro Agarre, estaitt dosena bat mutill edo, badoyes ba gabon sar errondan, da Martzatic bueltan , an Abauntze inguruen entzuitues arranak, astuen arranak. Ser ei abien?. Igo agetxai, kendu arramak, ankakin bidxurtu soka orde, da arrapau astuek, lotu samatik bidxurrekin, da batzuk astuokin, da bestiok an Laperriko soluen sarakada nabue artu, da etorri sien danak Abañora, da bata bestien lepotik artu astuok da igo abiesan kontzejuko balkoera, da sarakada nabue be, da balkoyen lotute itxi ei dxabiesan. Ori da errondie, olakoxe kirtenkeridxak eitten sien. Orduen Mendiolan egon be baeuen aketeridxe.

ERRONDAN EIÑ: parrandan egin, diru batzea taldeka kantuan, gabon zahar gauean

ERRONDARI (errondaridxe): e-rrondan egiten duena

ERROPA (erropie): erropa

ERROSARIDXO BEDAR (Erro-saridxo bedarra): Arrhenatherum elatius

ERROSETA (errosctie): lazoaz egiten den txori alkondaretan eta

ERROTA (errotie): errota

ERROTADA (errotadie): zerra, "ogi errotadie", (ogi errotada)

ERROTARI (errotaridxe): errotari

ERROTARRI (errotarridxe): errotarri "Krin kraun eitte aben errotarridxe"

ERRUBERA (erruberie): txirrinka

ERRUEDA: txirrinka

ERR(E)UMA (erreumie): erreuma, unore; "erreuma bedar" deritzon landarea erabiltzen da kentzeko. Bestalde, San Juan egunean goizeko garotara ortozik joatea ere ona da.

- KADXOLA TXORI (kadxola txoridxe): kaiola txori "Kardantxillue kadxola txoridxe da"
- KAFE (kafie): kafe
- KAFE ONTZI (kafe ontzidxe): kafe ontzi "Iresixu au kafioi kafe ontzire"
- KAFETXANO: kafea iragazteko iraztontzia
- KAJA (kajie): kaxa
- KAJOI (kajoye): kajoi
- KAKA : kaka
- KAKA EIÑ: kaka egin
- KAKA MOKORDO: kaka mokordo
- KAKA MUTIKO: mutiko gazte ausarta
- KAKA PIRRIDXE: kaka pirri "Orras iñora be esin like juen kaka pirri utze da"
- KAKANARRO: kakanarru, txikia "Mutiko kakanarruek selan burle eiñ!"
- KAKANASTE: kakanahaste "Ka-kanaste ederra eiu, konpunduixu oiñ au"
- KAKASTU: kakastu, zikindu "Li-buru gustidxe kakastu osue"
- KAKATZA: kakatza "Orras jantzi-dxorras esaittesie orra juen, kakatza aundixe dau te"
- KAKATI: kakati, bildurti "Olako kakatirik esin like beras iñora juen"
- KAKAU: kakao
- KAKO (kakue): gaztainak batzeko erabiltzen den kakoa
- KALABASA (kalabasie): kalabaza. Pertsona buru bakoa. "I as i kalabasie ete dakik burue nun dekuan!"
- KALAMATRIKA (kalamatrikie): iskanbila, zalaparta; "selako kalamatrikie!", (zelako iskanbila!)
- KALDEAU: berotu
- KALE (kalie): kale

- KALEARO (kalearue): kalearo
KALE BASERRI (Kale baserridxe): kale baserri
KALE BITTARTE (kale bittartie): kale bitarte "Antxe kale bittartien dau suek diñosuen dendie"
KALE KALE: kalerik kale
KALENTURA (kalenturie): sukar
KALETAR (kaletarra): kaletar "Kaletarrak gure aldien lotzabakuek dies"
KALIEK BETIEN IBILLI: beti kanpoan denbora ematen ibiltzea
KALLO (kallue): tripaki
KALTE (kaltie): kalte "Bertan bera istie kalte aundidxe da"
KALTE EIÑ: kalte egin
KALTEGARRI (kaltegtarridxe): kal-tegarri "Suretzako ori janaridxoi kaltegtarridxe da ta esixu jan"
KALTZADOR (kaltzadorra): kaltzador. 2.- Trenbideetako langile "Abaiñoko estasiñuen eskerretara euen kaltzadorren txabolie"
KAMA (kamie): gurdikama
KAMARA (kamarie): ganbara
KAMIE EIÑ: ganaduen azpia egin, kamaina
KAMIÑERU (kamiñerue): kamineru "Oiñ be kamiñeruek geldik egotaldi galantak eitten dabies"
KAMIÑERUTZA (kamiñerutzie): kaminerutza "Kamiñerutzie esta bier neketzue ixengo"
KAMIÑO (kamiñue): bide
KAMIOI (kamioye): kamioi
KAMIXA (kamixie): andreek erabiltzen zuten azpiko gona antzeko goitik beherakoa
KANA: 1 ile zuri. 2 Oihalentrako neurria 0,82 metrotakoa.
KANAL (kanala): ubide
KANBIDXAU: aldatu
KANBIDXU (kanbidxue): aldaketa
KANDELA (kandelie): kandela
KANDELA NEGAR: kandela negar "Etzan sepulturetan kandela negarra falta, ta kentzeko gatxa da"

KANDELERID XO EGUN (Kande-leridxo egune): kandelario egun, Otsailak 2, mutilek neskei gonbitea eskatzen zioten.

KANGILL (kangille): kankailu eta handikote

KANGREJU (kangrejue): karramarro

KANKALLU (kankaillue): kankailu, haundia "Suk asi bi osu mutill kankaillue)

KANKARRO (kankarrue): kankarro

KANPAI (kanpaye): kanpai

KANPAITXU (kanpaitxue): kanpaitxo

KANPANTORRE (kanpantorrie): kanpandorre "Kanpantorreko erlojue aspaldixen ondatute dau"

KANPASO (kanpasue): kapazo "Kanpasokada okana ekarri dau"

KANPO (kanpue): kanpo

KANPOARO (kanpoarue): kanpoaro

KANPOEDER (kanpoederre): kanporako ona dena, dena kanporako daukana "Gausa onerako su be kanpoederra sa"

KANPO SANTU (kanpo santue): kanpo santu

KANPOTAR (kanpotarra): kanpotar

KANTA (kantie): kanta

KANTA PAPEL (kanta papela): kanta paper

KANTARA (Kantarie): Isurkien-tzako neurria: 16 litro

KANTARI (kantaridxe): kantari "txoridxe dekosue kantaridxe suek"

KANTAU: kantatu

KANTIÑA (Kantiñe): kantina

KANTOI (Kantoye): bazter "Jo dau kantoye ta susen juen da lurrera"

KANTZASIÑO (Kantzasiñue): ne-ke "au da kantzasiñue dekuana!"

KANTZAU: nekatu

KANTZAU KANTZAU EIÑ: neka neka egin "Ogera goyes, kantzau kantzau eiñ dde gaus de"

KANTZOSO (kantzosue): nekagarri

KAÑA (kañie): kaina

KAÑABERA (kañaberie): kainabera "Kaiñaberiek beño txanka meyeuek dekos orrek"

KAÑAMO (kañamue): kainamo

- KAPAR (kaparrie): kapar "Txa-kurrei gaur kaparra bi kendu otzas.
KAPAS: gai, gauza "Suek oixe eitteko be kapas saie"
KAPATXA (kapatxie): tabakoa gordetzeko boltsa
KAPAU: 1. iraindu. 2. arbolak kapatu egiten dira zerra edo aizkora sartu baino lehen
KAPELA (kapelie): handigarri gisa erabiltzen da; "baya selako etxe sarrak, selako etxe kapelak", (zelako etxe tzarrak). Pentsoneri buruz berba egikeran esangura handigarria ere hartzen du: "I as sorro kapela!", (hi haiz azeri galanta!). "I as listo kapela!", (hi haiz argiontzia!)
KAPELLAU (kapellaue): kapeilau
KAPIRIDXO (kapidixe): kapirioa
KAPITTAL (kapittala): 1. huri buru. 2, kapital, dirua
KAPITTAN (kapittana): kapitain
KAPOI (kapoye): kapoi
KAPOTE (kapotie): kapote
KARABI (karabidxe): karabi
KARABISULO: Karea egiten zen zuloa.
KARAKOL (karakola): marraskilo
KARATXA: Karea egiteko erabiltzen zen haitz harria.
KARATXUE: Burpillean sartzen zen egur luzea eta sendoa, bertatik irten ez zedin larakue jartzen zitzaion trabesetara. Atzekaldeak kateak edukitzen zituen, eta kate hauekin ariak edo narra lotzen zen buzterrira.
KARATULA (karatulie): Karatul. "Kendiñ ori karatulloi"
KARAXA (karaxie): oiloen hotsa
KARAXAKA : kakaraka; "olluek karaxaka ibiltten die".
KARBURU (karburue): karburu

KARBUROUNTZIDXE: Argia egiteko, orain daukegun argi indarra eduki baino lehen, hauek erabiltzen ziren, karbueroz



KARBUROUNTZIDXE

KARDA (kardie): Lihoa kardatzeko eskubila alanbratsua.



KARDAK

KARDU (kardue): sonchus oleraceus. Etxean apaingarri gisa erabiltzen da

KARDU LATZ (kardu latza): kardu latz

KARE (karie): kare

KARE BIXI (kare bixidxe): kare bizi

KAREN KARA: alkarren parean, buruz buru "Arek eta gu karen kara bixi ga"

KAREN (karena). Sitse, ume ondokoa, parto bat ondoren bota-tzen den plazenta.

KARGA (kargie): zama

KARGANTE (kargantie): kargante

KARGU EIÑ: kargu egin, asku egin "Nok eingo tzo oni umioni kargu?"

KARGU EMON (kargue emon): kargu eman "Lapikue saintxeko kargue emo uste"

KARIE EIÑ: "karabi suluek karatxas kargetan sien goraiño, aspidxen arkue eiñ dde labie eitten dxakon, ara basotik ekarri tte otie sartzen dxakon, kargau ta kargau, neu be bost egunien edo seidxen ibillitte nau sue eiñ dde sue eiñ, arridxe egosi eitten san, karie eiñ. Udabarridxen da udan eitten san, solora botateko baitte etxiek eitteko be lurras nastaute, neu be ibillitte neu, estakixu Galiñddesen Seleilo etxie?, ba antxe Karabizuloak karatxez kargatzen ziren goraino, azpian arkua egin eta labea egiten zitzaion, hara basotik ekarritako ota sartzen zitzaion, kargatu eta kargatu, neu ere bost edo sei egunetan ibilita nago sua egin eta sua egin. Harria egosi egiten zan, kare egin. Udaberrian eta udan egiten zen, solora botatzeko eta baita lurras nastaturik etxe eraikuntzarako ere.

KARKABA (karkabie): karkaba

KARMELOA (karmelorie): dianthus barbatus

KARNABAL (karnabala) : inauteria.

KARNASERIDXA (karnase-riedxie): haratagi

KARNIXERU (karnixerue): harakin

KARRAKA (karakie): karraka

KARRAKADUN (karrakadune): karrakadun

KARRAKALDO (karrakaldue): kakarraido

KARRAMARRUE: karramarroa

KARRASKADA (karraskadie): karraskada "Eitten dau karraskada bakotxeko!"

KARRASKARA (karraskarie): karraskada

KARRASKILLA (karraskillie): karraskila. Tentsinoa bajatzeko ona da.

KARRETERU (karreterue): karreteru

KARRETILLA (karretillie): karretila

KARRIKOTXE (Karrikotxie): karrikotxe

KARRIUE: garraio

KARRO: karro

KARTA PARTIDAK: Ezkondata dagoen bikotearen banantzea "Urte bi dies eskondu diesela, ta laster eiñ dabies karta partidak orrek pe"

KARTOLA (kartolie): kartola

KARTZEL (kartzelie): espetxe

KARU (karue): garesti

KARUTU: garestitu "Babak be merketu bierrien karutu eiñ dies"

KASA (kasie): ehiza

KASIK: kasik

KASKA (kaskie): 1. kaska, buru; "kaskan araxe juetie sartu dxako, ta nok atara?", (kaskan haraxe joatea sartu zaio, eta nork atara?). 2. keinu.

KASKA EIÑ: keinu egin

KASKAJO (Kaskajue): kaskajo

KASKAMOLA (kaskamolie): Aritz landarearen gaixotasuna, arraman egiten koko batek eragina da, orban bat bezala brintxa bat egiten zaio arramari, eta bertan kortxoaren antzerako biribil bat egiten zaio eta barruan hautsa edo kokoak edukitzen ditu. "Biribil biribile da ta guk umetan oiñ umien kaniketan olgetan dabien moduen kaskanbolaka olgetan geñun"

KASKAR (kaskarra): kazkar "Nor da ori gixon kaskarroi?"

KASKARIN (kaskariñe): kaskarin, buru arina

KASKARRILLO (kaskarrillue): kaxkar, txatxar, ezdeus; "txarri kaskarrillo batzuk dekos".

KASORE (kasorie): ehiztari

- KASKETIÑ (kasketiñe): kriskitin "Atzamarrakin joten dies kasketiñak"
KASPA (kaspie): zahi
KASTA (kastie): kasta
KASU: jaramon
KASU EIÑ: jaramon egin "Asarre saus ala?, estostesu kasuik pe eitten"
KASUELA (kasuelie): kazuela
KATALAMIXON: umeen joko
KATAMAR: katamar, lautxakur "Laster asiko da ori oiñez aspaldidxen dabill katamar da"
KATAMARKA: katamarka
KATAMIXER (katamixerra): katamuxar
KATAMOTZ: Basakatoen tartekoa, buru haundia dauka
KATARRO (katarrue): Katarro
KATARROSO (katarrue): katarroso
KATE (katie): katea
KATIAU: kateatu
KATIGATU: katigatu "Ainkie sastra artien katigatu dxako"
KATIGU: katigu; eskuek katigu "Eskuek katigu dekuas da juen saittes seu atie sabaltzen"
KATILLU (katillue): katifu
KATIORRATZ (katorratza): kateorratz
KATO (katue): katu
KATOMIXERRA: katumixarra
KATU EPEL: Etxeko kato mantsoa.
KATU ILL: Otsaila, katoak zeloan egoten direlako
KATXARRERIDXA (Katxarreridxie): tresneria "Baya, baya estotzuet esan au katxarredixau beste leku batera erueteko?"
KAUTEN (-ren): kabuz (-ren)
KAUTEIKO (kauteikue): (-ren) kautakoa
KE (keye): ke
KEDARRA (kedarrie): gedar, tximiniatik irtetzen duen "hollina" "Kedarrias arkondarie sietz bal-tzittu dxata, barrero garbittu bikot"
KEISPE (keispie): gerizpe

KEJAS EGON: kejaz egon "Kejas daus ereuk gure dabien moduen estotziela bierra eiñ dde"

KEJAU: kejatu

KEJOSO (kejosue): kejoso

KE(R)IXA: 1. gereiza. Hona hemen moeta batzu: anpolla, kerixa baltz. 2. geriza, itzala, pertsonena

KEIXPE (keixpie): gereizpe

KEIXPETAN: gereizpetan

KELETRO (keletrue): txorimalo, papau, ergel; "orre dxekex keletro itxurie".

KENDU: kendu

KENTZAILLA (kentzaillie): kentzaile

KERIXA: Itzala

KERIXA BALTZ (keridxa baltza): gereiza moeta bat

KETO (ketue): txikia, indarbakoa "Ketue bai baña berak gure dabenerako"

KETU (ketue): 1. ketu 2. epel eta kikila

KEYE: ke

KIKARA (kikarie): kikara, xikara "Kikara bana txokolatie artu u"

KIKILDU: kikildu; "otzak kikildute nator"

KIKOLO-MOKOLO : kokolo izan edo kokolo gisa ibili; "kokolo- mokolo dabilhelakuen, selako bixkorra ori preguntetako, e?",

KILI-KILI (kili-kilidxe): kili-kili

KILI-KILI EIÑ: kili kili egin

KILI-KOLO: gaixorik, kili-kolo da-bilena

KILI MALA: kili kolo, pertsona makal dagoenean

KIMAU: kimatu

KIMELET (kimeleta): ginbelet, laratro

KINKILLA (kinkillie): kinkaila

KINKILLERU (kinkillerue): kinkaileru "Jaidxetan etorten dies ona kinkilleruek ugeri"

KINKILLERIDXA: kinkaileria

KINTTO (kinttue): kinto

KINPULA (kinpulie): kipula

KINYA (kinyie): ginda

- KIÑARRA (kiñerrie): ginarra
KIÑARRESKO ITZUSKIDXE: ginarrezko erratza
KIÑARRA KORAÑA (kiñarra koraiñie): ginarra kodaina
KIÑU (kiñue): kinu "Batekuen kiñue artu otzut"
KIÑUE EIÑ: kinu egin
KIÑUKE: kinuka
KIPULA (kipulie): kinpula
KIPUTZ (kiputze): giputz
KIRIBILLO (kiribillue): kizkur, uretan egiten diren olatu biribilak, biribila dena, kiribil
KIRIKIDXO (kirikidxue): kirikolatz
KIRRI-KIRRI (kirri-kirridxe): girrizgi
KIRRI-KORRO: katarroaren hasperenak, zotenak
KIRRISKADA: kriskada
KIRRO (kirrue): Oihal sendoa, errizatua. Ehunezko izarak ere kirruak izaten ziren.
KIRTEN (kirtena): girten
KISKETA: kisketa
KISKILDU: kiskali
KISKILYU: kiskali "Okelie sartanien kiskilyu eiñ dxatzu"
KISKOR (kiskorra) : kizkur
KISKORTU: kizkurtu
KITTARRA (kittarrie): kitarra
KITTERRA: gitarra
KITTERRIE JO: gitarra jo, txakurrek hazka egiten dutenean
KITTU: kito
KIXMA: Euri kixmak, tantaka txikiak. Edur kixmak: Elurra abiatzen duenean jausten diren banakako elur zatiak.
KLABELIÑ (klabeliña): klabelin
KLARIOI (klarioye): klarion
KOBARDETU: kikildu
KOBÁ (kobie): koba
KOBRAU :kobratu

- KODAÑA (kodaiñie): kodaina+
- KOIBE (koipie): koipe
- KOIPELUSTRE (koipelustrie): lau-sengari
- KOIKEKERIDXA: koipekeria
- KOIPETU: koipetu
- KOITTADA (koittadie): koitada "Koittadie suri pasetan etxatzunik!"
- KOITTAU: koitadu
- KOJO (kojue): ankamotz; "kojo dabil"
- KOJOTASUN (kojotasune): erren-tasun
- KOKALDIE : paperak. 2. Ardiek edukitzen duten tumore txarra, gaixo honaz ardiak jil ere egiten dira.
- KOKILYU: kokildu "Etorri seittes ona, ortxe saus kokilyute ta"
- KOKO (kokue): koko, kotxo; edozein mamarrori buruz ere esaten da.
- KOKOLO (kokolue): Kokolo
- KOKO MARRO (koko marrue): umeei esaten zaie "koko marrue" etorriko dela bildurtzeko. Kar-nabaletan jazten direnak ere izaten dira.
- KOKOTA: kokota
- KOKOTZ: okotz
- KOLASIÑO (kolasiñue): Bariku guren egunean afaltzeko barau gisa egiten zena, porru salda baino ez zen jaten.
- KOLKO (kolkue): kolko
- KOLLAR (kollarra): iduneko
- KOLLARA (kollarie): koilara
- KOLLARINE: asto eta zaldiaren aparejuaren koilarina
- KOLORE (kolorie): Kolore
- KOLORGATU: kolorgetu
- KOLTXILLA (koltxillie): edredo
- KOLTXOI (koltxoye): koltxoi
- KOLTXO ORRATZ (koltxo orra-tza): koltxoi orratz
- KOMARA (komarie): komoda; arropa gordetzeko altzaria
- KOMENIDU: komeni
- KOMENENTZI (komenentzidxe): komenentzia
- KOMESTASIÑO (komestasiñue): elkarrizketa

KOMODA (komodie): komoda

KOMUN (komune): Komun

KONBIDAU: gonbidatu

KONBIDAU EGUN: gonbidatu egun. Egun horietan jataldi bereziak egiten ziren: "garbantzue, fideo edo pistola sopa, asie, konejue ta arros esnie" jaten ziren.

KONDE! : esklamazioa, futxo!; "ixi-lik, konde!"

KONDISIÑO (kondisuñue): baldintza "Jueten itxiko tzut, baiña kondisiño batas, sasos etorten basa

KONEJU (konejue): untxi. Lehen untxia kanpoko jendea etxera joatean eta domeketan edo jaten zen.

KONFESAU: aitortu

KONFURO (konfurue): konjuro, batez ere trumoa denean kandela biztea

KONIFLORA: aza lore

KONORTE (konortie): konorte "Artu daben takarradias konortie be haldu eiñ ddau"

KONPARASIÑO BATEN: konparazio baten, esate baterako "Konparasiño baten su nire aistie sa esta?, ba orrek be oixe dies"

KONPARTZA (konpartzie): konparsi

KONPAS (konpasa): konpas

KONPONDU: konpondu

KONPOTA: konpota

KONPRIMENTU (konprimentue): konplimendu "Bape konprimentu barik emoskues bier ixeusenak"

KONPRIMENTU EMON: konplimendu eman

KONTAMINASIÑO (Kontamina-siñue): kutsadura

KONTAU: kontatu

KONTENTUS: pozik

KONTRA: kontra

KONTRASOL (kontrasola): kontrasol "jarri saittesie kontrasolien obeto egongo saie ta

KONTU: kontu

KONTUATU (konturatu): konturatu

KONTUE EUKI: kontu euki

KONTUEN EUKI: kontutan euki "Eukixu kontuen ser esate otzuan"


KONTU KONTULARI: kontu kon-tulari "Kontu kontulari egon ga arratzaldien"

KONTULARI (kontularidse): kontulari

KONTURE (-ren): lepotik (-ren) "Politto eiñ dabie barra arek gure konture"

KONTUS: kontuz

KONTZEJUE: Udaletxea. Abadi-ñon eliza ondoan dagoenari nagusiek honela deitzen diote, eta Txanportan dagoenari aiuntamentu



ABADIÑOKO KONTZEJUE

KONTZERBAN: kontserban

KONTZERBAU: kontserbatu

KONTZESIÑO EGUN (kontzesiño egune) kontzesio egun

KOÑATA (koñatie): koinata

KOÑATAGEI (koñatageidxe): koinatagai

KOÑATU (koñatue): Koinnatu

KOÑATUGEI (koñatugeidxe): koinatugai

KOÑETA (koiñetie): koinata

KOÑETU (koñetue): Koinatu

KOPA EUKI: Hau arbolaren "copari" dagokio. "Arbola kopiean aspidxen esta bedarrik asten"

KOPETA (kopetie): kopeta

KOPLA (koplie): koplá, kontu ugari edukitzea "Esixu ainbeste koplá eiñ da eldu eiosu bierrai"

KORAIÑA (koraiñie): kodaina



Egurrezkoa ASTUE eta bertan sartuta daudenak KORAIÑIE SORROSTEKO PILAMALLUE eta DXUNGURIE

KORAIÑA ARRI (koraiña arridxe): kodaina harri, kodaina zorroztekoa

KORAIÑAKETA (koraiñaketie): ko-dainaketa "Arratzaldien koraiñaketan ekiotzau da arlo makala estu ebei ba"

KORAÑA (korañie): kodaina

KORAPILLO (korapillue): korapilo, marapilo

KORDA (kordie): korda

KORDEL (kordela): kordel

KORRIDU: karran egin, korritu

KOROSTI (korostidxe): gorosti, lles aquifolium

KOROTZ (korotza): korotz "Gusan emendik ardi korotza baiño estau ta"

KORTA (kortie): gorta

KORRIDU: korritu

KORROKADA (korrokadie): korrokada

KOSETXADORA (kosetxadorie): uzta bilgailu

- KOSIÑERO (kosiñerue): sukaldari
 KOSKONDU: koskortu; "ordureko neiko mutill koskondute euen".
 KOSKITTU : haginak hozkitu; "agiñe pe koskittu eitten dxatas orras"
 KOSKOR (koskorra): koskor. 1. Txiki 2. Tontor "Belarriosteko koskorra be obeto asi baiño lenau kentzen bosu"
 KOSKORREKO (koskorrekue): kozkorreko, buruan kolpe txikia hartzea edo emateko "Koskorreko bat emoten botzut"
 KOSTAIKUE KOSTATA: kostatutakoa kostatuta "Kostaikue kostata be oixe beidxau ekarriko neuke etxera"
 KOSKORTU : koskortu
 KOSKU (koskue): barrabil
 KOSTAU: kostatu
 KOSTUNBRE "Kostunbrie": ohitura
 KOTXITTAUTE EGON : nazkatuta egon
 KOTXO (Kotxue): koko, kotxo
 KOTXOTXO (kotxotxue): kotxotxo
 KRIDXADA (kridxadie): neskame
 KRIDXAU (kridxaue): morroi
 KRISKITIÑ (kriskitiñe): kriskitin
 KRISKITIÑ EIÑ : kriskitin egin
 KRISTEL (kristela): kristal
 KRISTI: kristo
 KRISTIÑA!: futxo!
 KRISTIÑAU: giriztino
 KRITIKA (kritikie): kritika
 KROMO (kromue): kromo
 KROMOKA: kromoka "Arratzalde gustidxen kromoka ibilli da, da danak galdu daus"
 KUARTA (kuartie): neurri bat, 12 eta erdi kilo
 KUARTA TENPORAK: kuarta denborak
 KUARTEL (kuartela): kuartel
 KUARTILLO (kuartillue): kuartilo
 KUARTILLO TA ERDI: kuartilo eta erdi

KUARTU (kuartue): gela

KUBI: 1. kui, akuri. 2. ezkutunetik agertzea

KUBIKE : kukuka "Gureosue ala kubike olgeu diun?"

KUBIKE OLG AU : kukuka egin "Bat kontatzen geratzen da lekuen eta besteak gorde egiten dira, lekuan dagoenak, besteak aurkitu behar ditu"

KUESTIÑO (kuestiñue): kuestione

KUKARATXA (kukaratxie): labezomorr

KUKU (kukue): kuku; txepetxari arrotzak ipintzen dizkio, txepetxak arrotzak atera baino lehen, txe-petxak umea hazteko. Kukuak kantatzen duenean poltsikoan dirua edukiz gero urte osorako dirua.

KUKU EIÑ: kuku egin

KUKUKE: kukuka, kubike

KUKU PRAKA (kuku prakie): digitalis purpurea, landare moeta bat

KUKURRUKU (kukurrukue): kukurruku, oilarrarena

KUKURRUKU EIÑ: kukurruku e-gin

KUKURRUKUESTUL (Kukurru-kuestule): kukurruku ez tul; "erreu-ma bedar" deritzona ona ei da; gauean kanpoko inuntzetara uz-ten da eta biharamonean berak botako ura edan egiten da.

KUKURUMIDXO : 1. kukubilko. 2. auspez

KUKU SAGAR (kuku sagarra): kuku sagar

KULERO (kulerue): kulero

KULETRO (kuletrue): amanita caesarea

KULETRO FALTZU (kuletro faltzue): amanita muscaria

KULPA (kulpie): erru

KUNA (kunie): kuma, seaska

KUNPLIDU: kunplitu

KUNTZURRUN (kuntzurrun): gil-tzurdin

KURAU: osatu, sendatu

KURIDXOSO (kuridxosue): itxuroso, dotore;(gauzei buruz esaten da)

KURIOSA (kuriousie): nonzebarri

KURIOSO (kuriousue): nonzebarri

KURLOI (kurloye): kurloi; txoririk gogorrena eta kalte gehien egiten duena ei da

KURKUBITTA (kurkubittie): sagar moeta bat

KURRA : oiloei deitzeko hotsa.

KURRINKADA (kurrinkadie): kurrinkada

KURRINKE: kurrinka

KURRIÑ KURRIÑ: txerriaren soinuaren onomatopeia, txerriei dei-tzeko ere erabiltzen da

KURUTZE (kurutzie): kurutze

KUSAN IBILLI : zuzuan ibili, nonzebarri ibili. "Ser dabidxu armaidxuen kusan?"

KUSU (kusue): Txorimakue, soloetan txoriak uxatzeko jartzen zena



KUSKU (kuskue): kaxkar, txatxar; "lei kuskubatein yau", "denda kuskusutxo ba teko"

KUSKUR (kuskurre): 1. ezkur; "artien kuskurre", "agatxan kuskurre", "paguen kuskurre", e.a. . 2. ogi kuskur.

KUTUN: 1 (Adj.) kutun. 2. Umeek paixan katiorrataz katigatuta eramaten zuten liburutxo antzerakoa. "Suei Durengon Trapusarrenien erositte ipintten neuntzuen, esate abien begiskoik es eukitteko ixeten sala"

KUTXILLA (kutxillie): kutxila



Apiak suritxeko KUTXILLIE

KUTXILLO (kutxillue): ganibeta

L

LABA (labie): labe

LABADERO (labaderue): labadero

LABADURA (labadurie): legame "Oriei labadurie botaten dxakon jagitteko"

LABADURABAKO (labaduraba-kue): legamebako

LABAN: laban

LABAN LABANKA: laban labanka "Laban labanka bajatu geñusen aldatzak"

LABANDERA (labanderie): garbiltzaile

LABANDU: labandu

LABAN EIÑ: laban egin

LABAÑA (labañie): labaina, bizarra egitekoa baino ez.

LABARRA (labarrie): aldapatsu


LABASU (labasue): labasu "As-tien behin egiten san gutxi gora bera etxerako ogidxe eitteko"

LABATIBA (labatibie): labatiba

LABATXORRI (labatxorridxe): txirri-txirri

LABATXURRI (labatxurridxe): txirri-txirri

LABATZU (labatzue): laratzu



LABATZUE

LABORE (laborie): labore

- LABRANTZA (labrantzie): nekazaritza
- LABRAU: landu, goldatu
- LABUR (laburre): labur
- LABURTU: laburtu
- LAGUN (lagune): lagun
- LAGUN EIÑ: lagun egin
- LAGUNABAR IBILLI: Lagunen antzera ibili, besteek egiten dutena egin
- LAGUNABARRIEN IBILLI: Beste-ak dabiltzan antzera ibili
- LAGUNARTE (lagunartie): lagunarte
- LAGUNDU: lagundu
- LAGUNTASUN (laguntasune): laguntasun "Sure laguntasunas urrin juen neike"
- LAGUNTZA (laguntzie): laguntza "Laguntzie gure bosue, seuok be lagundu"
- LAGUNURKO (lagunurkue): lagun urko
- LAI DXA (laidxe): laia
- LAI DXAKETA (laidxaketie): laiaketa "Laidxaketie bier neketzue ixeten san, illaran parau ta arek arlo gustidxe k laidxatu bier"
- LAI DXATU: laiatu
- LAKAIÑA (lakaiñie): sokaz egiten den kopeta, Buruan ere ileaz lakaiñak egiten dira, bat bi edo orain gehiago.
- LAKAR (lakarra): latz "Eskuek dekus guk lakarrak ainbeste bier eiñ dde gero"
- LAKATZ (lakatza): mentu, txerto; sartzen den abartxo da.
- LAKATZA SARTU : iruzur egin
- LAMIÑA (lamiñie): lamina
- LANA (lanie): artile
- LANA KOLT XOI: artile kolt xoi
- LANBERA IXEN: Denporaldi gogorraren ostean, biguntzen hasten denean. "Ointxe esan like lanberatuko dabela denporie apur bat"
- LANBERATU: lurmendu, elurra urtu
- LANBRO (lanbrue): lanbro
- LANBRO IXEN: lanbro izan "Lanbrue da"

LANDA (landie): landa
 LANDA EIÑ: landa egin "Auxe solauu be aurtan landa eiñ biu"
 LANDARA (landarie): landara
 LANDATU: landatu
 LANDOYE: Zalgurdia, jendea e-ramateko izaten zen.
 LANDU: landu
 LANGA (langie): langa
 LANKAR: lankar
 LANPAR (lanparra): lanbro
 LANPARA (lanparie): argiontzi
 LANSARI (lansaridxe) lansari "Aste gustidxen ibilli da ta lansaridxe be badakar etxera"
 LANPERNA (lanpernie): macrolepiota procera; perretxiko moeta bat
 LANTAR (lantarra): pindar "Bedar siku artera lantarren bat jausitte sue artu daben antza deko onek"
 LAÑO (lañue): hedoi
 LAÑOARTE: lainoarte "Serue la-ño arte dau, estakitt argittuko daben"
 LAÑOTZU (lañotzue): lainotsu "Egun gustidxen lañotzu egon da"
 LAPATX (lapatxa): pertsona gogaikarri
 LAPIKO (lapikue): lapiko



LAPIKUE

LAPIKOKO (lapikokue): lapikoko, babak, porru patatak, garban-tzuek etab. "Jaixu lenengo lapikokue patelkada bat da gero ganién egongo da seoser lapikostekue"
 LAPIKOSTEKO (lapikostekue): okela, txarriki
 LAPIKOTXA (lapikotxie): sekretuak gordeta eukitzea "Esin lidxatzue suei be gausa asko kontau lapikotxa txikidxe dekosue ta"
 LAPIKO TXIKI (lapiko txikidxe): (Adj.) sekretuan ezer ezin gorde dezakeena
 LAPITZ (lapitze): lapitz
 LAPRAST EIÑ: laban egin
 LAPUR (lapurre): lapur
 LAPURREN EIÑ: lapurretan egin "Lapurren eingo oskuen bilyur ga"
 LAPURRETA (lapurretie): lapurreta
 LARAKO (larakue): larako, burtenean trabez sartzen da

BURTENA eta
ATZEKO LARAKUE

LARAKO SULO (larako sulue): larakoa sartzeko burteunean dagoen zuloa
 LARATZU (laratzue): laratzu, galdarak eta gandailak tximiniatik beko sure eskegiten diren gan-txoa.
 LARRA (larrie): larra "Antxe Santikurutz larran topau geñusen"
 LARRA BEDAR (lara bedarra): larra belar
 LARRA PERRETXIKO (larra perretxikue): larra perretxiko
 LARRA SOSO (larra sosue): larra zozo
 LARRABASO: Azpian belarra duen basoa, zeren larrak azpian ganaduarentzako pastoa eduki-tzen baitu.

LARRATXORI (larratxoridxe): larratxori

LARREI: gehiegi

LARREIKO: gehiegizkoa "Aren entramie larreikue da"

LARRI: larri

LARRI EGON: larri egon

LARRIALDI (larrialdidxe): larrialdi

LARRIÑ (larriñe): larrain, lkatz edo gari larrain

LARRITTASUN (larrittasune): larritasun

LARROSA (larrosie): larrosa

LASTAMARRAGA (lastama-rragie): lastomalutaz egiten den koltxoi antzerakoa

LASTAMARRARA (lastamarrarie): lastamarraga

LASTAN (lastana): lastan

LASTANA!: lastana, umeeekin deikari gisa erabiltzen da amoltsuki

LASTANDU: lastandu

LASTER: laster

LASTIMA (lastimie): lastima "Lastimie berandu akordau ga"

LASTO (lastue): lasto



ARTO LASTUEK

- LASTO ESKUTA (lasto eskutie): lasto eskuta
 LASTRA (lastrie): Astillie, egur zati txikiak "Lastra bat sartu dxata atzamarrien, da badeket miñau!"
 LASTU: lastu
 LATA (latie): lata, teilatua osatzekoa
 LATIGO: latigo, gogor ekin
 LATIGUEN: latigoan
 LATZ (latza): latz
 LATZ ERETXI: latz eritzi "Oni biximoduoni latza deritxot"
 LAU: lau
 LAUKO (laukue): lauko
 LAUKOTX (laukotxa): laukoitz
 LAU LAU EGON: lau lau egon "Andik tontorretik begittuixu esta, ta lau lau ikusten da au danoi"
 LAUOÑAN : lauoinka
 LAUORTZ (lauortza): lauortz, lurra lantzeko makina
 LAUSIRIENA (lausiridxena): cha-maecyparis lawsoniana
 LAUSO (lausue): lauso "Gosiena es pada dekuan lausue"
 LAUSUE EIÑ: begiak lausotu "Antxe jarritte egon nasenien eiñ dxata begidxetan lausue, apur baten eser ikusten estuala egon nas"
 LAUTADA (lautadie): lautada
 LEBADURA (lebadurie): legame
 LEBATZ (lebatza): legatz
 LEBRIAJE (lebriajie): itxura, taju
 LEGANA: azaleko ekzema
 LEGAR (legarra): legar
 LEGARTU : legartu
 LEGE (legie): lege
 LEGIE EIÑÑ: aldi aldiko otordua egin; "legie ein yu, ta oiñ asi geittesen bierrien", (legea egin dugu, eta orain has gaitezen beharrean).
 LEGORTU: lehortu "Ona sikutias dana legortu bi dau"
 LEI (leidxe): 1. izotza. 2. izoztaldi
 LEI BALTZ (lei baltza): lehi beltz

LEIDU: irakurri

LEIÑ: lain "Guretzako leiñ badau ta ixillik egon gaittesan"

LEI SURI (lei suridxe): lehi zuri

LEITTU: lehitu "Ure be leittu eiñ ddau, eitten daben otzas"

LEIXAR (leixarra): lizar; ola txarra dauka. Barak egiteko ona da. San Juan egunean batu egiten da barren bat etxeko atalburuan lorekin jartzeko. Gurutzeak e-ginda soloetan ere jartzen da.

LEIXIBA (leixibie): bukata "Gurien leixibie amabostien beiñ eitten san, erropa suridxe eitten geñun. Lenengo egunes erropie mai baten jabonau eitten san., gero gabes, leixiba untzire sartzen sien da jaboï txatalakin egosi ure ta botaten san leixiba untzire, a ure jueten san leixiba sulora, andik artu ta barriro egosi, bidxen bittartien leixibie ganien trapu suri bat ipiñi da ara surteko eutze botaten san, ona ei san erropak suritxeko, da gero ur egosidxe, gero eridxontza arrama bat edo bi surten erre da txirtadaka dausela barriro be irakitten euen urei botaten dxakon, da danak botaten sien leixiba untzire, eridxontziek useiñ gosue emote otzen erropie. Ori eiñ dde gero gau osuen isten sien erropak leixiba untzidxen. Bidxamon goixien jotzen sien posuen da gero eskei eitten sien. (Gurean leixiba hamabostean behin egiten zen, arropa zuriaz egiten genuen, izarak etab.. Lehendabizi egunez arropa jabonatu egiten zan, gero gauez leixiba ontziran sartzen ziren, jaboï atalekin egosiriko ura botatzen zitzaion gainetik, ur hura leixiba zulora joaten zen, handik jaso eta berriz egosten zen, bitartean bukata gainean oihal zuri bat jarri eta ara surteko hautsa botatzen zen, ona omen zen arropak zuritzeko, eta gero ur egosia botatzen zitzaion gainetik, ondoren eriontza arrama bat edo bi sutan eduki eta txirtadaka zeudela iraikitzen zegoen urari botatzen zitzaizkion, arropari usain ona emoten bait zion, eta leixiba ontzira botatzen zen, horrela uzten zen gau osoan. Biharamon goizean pozuan jotzen ziren eta gero eskegi egiten ziren.

LEIXIBARRI (leidxiba arridxe): (leixiba arridxe): bukata egiteko erabiltzen den harri

LEIXIBA SULO (leidxiba sulue): Leixiba ontzia husteko dagoen zuloa. "Gurien leixiba sulue eskatzien euen, da nik beste etxe batzutan be olan

esetu ot, ara lexiba untziko ure jueten san, andik artu da barriro lexiba untzire botaten san”

LEIXIBA UNTZI (leixiba untzidxe): leixiba untzia, bukata egiteko erabiltzen den untzia “Jeneralien barrika bat ixeten san”

LEKA (lekie): leka; “lekan dau”

LEKARRALDO (lekarraldue): Lehiaz teilatutik behera egoten diren izotz kandelak

LEKU (lekue) : leku

LEKUEN (-ren): ordez (-ren)

LELA (lelie): mamala

LELENGO (lelengue): lehenengo “Lelengue neu nas”

LELENGO TA BEIÑ: lehenengo eta behin “Entzuixu lelengo ta beiñ da gero eiñ berba”

LELENGOS: lehenengoz

LELENGOTAN: lehenengoetan

LELO (lelue): lelo

LELOKERI (lelokeridxe): lelokeria

LELUE AKABOBAKUE: guztiz leloa dena “Lelue akabobakue da ori, bera dala dana pentzetan dau, da esebe ixen es”

LEN: lehen

LEN AIÑE: lehen aina “Irabasi une galdu eiu barrido, len aiñe geratu ga”

LENBAILEN: lehen bait lehen

LENBESTE: lehen beste

LENGOSIÑIE : lehengusina

LENGOSU (lengosue): lehengusu

LENGUSIÑA (lengusiñie): lehengusina

LENGUSU (lengusue): lehengusu

LENTEJA (lentejie): lenteja, txilista

LENTXUAU-GEROTXUAU: lehentxoago-gerotxoago, goiz edo berandu; “lentxuau-gerotxuau, eiñ eiñ biko da”


LETXUGA (letxugie): letxuga

LEPO (lepue): lepo

LEPO ASUR (lepo asurre): lepazur

- LEPO BETE ARTU: jipoi handia hartu "Kontus ibilltten espada lepo bete artu bi dau orrek gutxien pentzetan dabenien"
- LEPO BETE EMON: jipoi handia eman
- LEPOTE (lepotie): konkor "Geruau ta sarrau lepota aundidxaue deket"
- LEPOTEDUN (lepotedune): konkordun
- LEPOTXO (lepotxue): konkorduna izendatzeko era hipokoristikoa
- LERA (lerie): lera, Gurpil bako gurditxoa
- LETXADA (letxadie): kare eta urez zuritzeko egiten den nahastea
- LETXUGA (letxugie): letxuga
- LIBERDI: libra erdi "Ekarrixu urdeidxe liberdi"
- LIBERTADE (libertadi): askatasuna
- LIBRE (librie): libra
- LIBRERIDXE: liburudenda
- LIBURU (liburue): liburu
- LIGA (ligie): liga
- LIKINYU: likindu, pasatu: janariak likintzen dira
- LIKIÑ (likiñe): likin
- LIMA (Limie): lima
- LIMITTAU: mugatu
- LIMOI (Limoye): limoi
- LIMO SAGAR (limo sagarra): sagar moeta bat
- LIMONADA (limonadie): limonada
- LINYERO (linyerue): bide ertza "Ortze linyeruen deko onek munarri bat"
- LIÑO (liñue): lihoa
- LOR (liorra): lehor
- LORRES: lehorrez
- LIRIDXO (liridxue): liliium candidum. Maiatzaren azkenerako egoten dira.
- LISTA: azkar
- LISTERUE: Zerrendak egiten zituena, izenak hartzen zituena
- LISTO (listue): azkar
- LISU (lisue): leun

LIXIBA OTXARA: lixiba otzara, kakotik batu ta erropa etxera eramaten zeneko zimetzezko otzara.



LEXIOTZARIE edo
LEXIBA OTZARIE

LOALDI (loaldixe): lotaldi "Loaldi bat eiñ ddau da oiñ txoridxen moduen dau"

LO ASARRE (lo asarrie): lo oste, lo haserre "Siestie botaten dabən bakotxien lo asarrias jagitten da"

LO ASARRIE EUKI: lo oste euki

LODI: lodi

LODITU: loditu

LODIXERA (lodidxerie): lodiera "Nik artu ot artzeko lodidxerie"

LO EIÑ: lo egin

LOGRAU: lortu

LOGURE (logurie): logura

LOGURE IXEN: logura izan

LOGURETU: loguretu "Logure-tzen danien es esan eser oni"

LOGURIAS ERRETA EGON: logurez erreta egon "Logurias erreta dau ta berorrek be estaki ser gure dabən"

LOGURIEK ERRETA EGON: logureak erreta egon

LOI (loidxe): lohi

LOI-ESTARI (loi-estaridxe) lohi-estali, lohi gaitz

LOIKOR (loikorra): lohior "Au arkondarioi lokorra da"

LOITTU: loitu

LOKA: 1. loka, oiloen zeloa. 2. loka, kili-kolo

LOKASTU: lokaztu "Euridxe eiñ dabenien etxaurre gustidxe lokastu dau"

LOKATU: lokatu "Maidxen ainkie lokatute dau da kontus ibilli"

LOKATZ (Lokatza): lokatz

LO KUKU: lokuluska

LOLO: lo, umeen berba

LORA (lorie): lore; konposatueta ere agertzen da: otalora

LORAGIÑUE: organum vulgare. Odolosteei bota egiten zaie gustu hobea emateko. Muna bazterretan egoten da (Ikus orangano)

LORAMIÑO (loramiñue): organum vulgare.

LORATU: loratu

LORI (loridxe): lodi

LORITTO: lodito

LORITTU: loditu

LORRATZ: arrasto "Emen ganaue badabill lorratza ugeri dau"

LORRINKE: zikinkeria dariola

LORRINYU: Nahastu bat ematea. "Esate baterako seoser ganoras ereiñ estanien esaten da: Lorrinyu bat emootzau"

LORRINKERIDXA: lorrinkeria

LORRIÑ (lorriñe): uger; "ori ok lorriñe itxi una!",

LORTU: lortu

LOSA (losie): lausa

LOTAN: lotan

LOTAUKI (lotaukidxe): lokuluska "Esta asko ixeten baiña lotauki bat beskalostien derrigorrien eiñ bier"

LOTEUKI (loteukidxe): lokuluska; "maidxen loteukike egon barik, sues ogera".

LOTI (lotidxe): loti "A neska loti utze as"

LOTU: lotu

- LOTZA (lotzie): lotsa
 LOTZABAKO (lotzabakue): lotsabako
 LOTZA IXEN: lotsa izan "Oixe da penagarridxe, dakidxena esateko lotza ixetie"
 LOTZABAGA (lotzabagie): lotsagabe
 LOTZABAKO (lotzabakue): lotsabako
 LOTZAGARRI((lotzagarridxe): Lotzagarri "Es keittesan lotzagarridhek ixen da gusan etxera"
 LOTZARI (lotzari): lotsari "Kulpa barik entzu abesenak, arek pasauko aben koittauk lotzaridxe"
 LOTZARREN (lotzarrena): lotsarren
 LOTZATI (lotzatidxe): lotsati "Lenm lotzatidxe san, baiña oiñ nok ikutu orri"
 LOTZATU: lotsatu
 LOTZEKIÑ (lotzekiñe): eskutak lotzeko lokarri
 LOTZOR (lotzorra): lotsati
 LUBARRI(Lubarridxe): lubarri. Atxurtutako basoa
 LUEK ARTU: loak hartu "Luek artu dau da eruen diun etxera"
 LUGAN (lugana): luban
 LUGARRI (lugarridxe): lugarri
 LUKARTU: loak hartu
 LUKUR (lukurrie): Lukur
 LUKURRERO (lukurrero): lukurrero "Ik ogerleko bat gastau baiño gureu, etxakiat ser eingo euken lukurrero utze as gero eh"
 LUMA (lumie): luma
 LUMATU: lumatu
 LUNAR (lunarra): orainen
 LUPESTU: lupeztu "Baya baya nun ibilli saie, etxera olan lupestute etorteko!"
 LUPETZA (lupetzie): basa
 LUPU (lupue): oruga
 LUPU TXIKI (lupu txikidxe): lupu txikia
 LUR (lurre): lur

LURBENDU : elurra urtzean lehen lur-uneak

LUR IKERA (lur ikerie): Lur ikara. "Or kanpuetan ixen bier ixen dabie lur ikera itzelak"

LURRARO (lurrarue): lurraro

LURRE PALATU: Hortz bikoaz eta paliaz lurra altxatu

LURRUN (lurrune): lurrun

LURRUNDU: lurrundu

LURRUNTZ BEDAR (lurruntz bedarra): sauku(?), "usiñ txarra deuko"

LUR SAGU (lur sague): lur sagu

LUR TXAKUR (lur txakurre): lur txakur

LUR UNTZ (lur untze): intzurri moeta bat

LUSARO: luzaro

LUSATU: luzatu

LUSE (lusie): luze

LUSERA (luserie): luzara "A mutill ik artu bi ok luserie"

LUSERO: luzero

LUSIE IXEN : ixila izan

LUSIMENTU: luzimendu

LUSINGA (lusingie): luzanga "Liburu lusinga bat da, ortxe bastarrien dau"

LUTUDUN: lutudun

LL

LLANTA (llantie): uztai, gurdi txirrinkena

LLOBA (llobie): 1. loba. 2. iloba

LLORONA (lloronie): salix babylonica ie): letxuga

M

- MADARI MAKATZ (madari makatza): madari moeta bat
 MADARIKATU: madarikatu
 MAGAL(magala): magal, zabal, nasai "Gona magal magal bat ei ot udarako"
 MAI (maidxe): mahai
 MAIPE : jatera berandu heltzen denari esaten zaio
 MAISTRA (maistie): maistra
 MAIXU (maixue): maixu
 MAITTE : maite
 MAJADERO (majaderue): majadero "Es ai majaderue ixen, da ego ai ixillik"
 MAJO: majo, dotore "Majo majo konpontzen saie suek"
 MAKAL (makala): makal
 MAKALDU: makaldu
 MAKALLO (makallaue): makailo
 MAKASDUI (makasduidxe): makazti
 MAKATZ (makatza): 1. madariondo. 2. madari, makatz; hona hemen jaso ditugun makatz moetak: sibiri makatz, txintxilla makatz, san juan makatz, san pedro makatz, Carmen makatz, Itturba makatz, Gabon makatz, Baso makatz, Patata makatz Allamotza, Kanela makatz
 MAKATZ SAGAR (makatz sagarra): makatz sagar
 MAKERA (makerie): makera+
 MAKILLE (makillie): makila
 MAKILLETU: makilatu
 MAKIÑA (makiñie): golde
 MAKIÑA BAT: makina bat "Makiñatxo bat bider ixen ga ba ori konpontzeko"
 MAKIÑATU: makinatu
 MAKULU (makulue): makila "Jau-si sanetik geidxau ainkatik txarto dabil, estosu ikusten oiñ be makuluekin dabil"
 MAKUR (makurre): makur

MAKURTU: makurtu "Makurtu sei-ttes da altzeixu seuri jausi dxatzu ta"
 MALA: gaixoa, gaixotasun
 MALA EUKI: gaixotasuna euki
 MALBABISKO (malbabiskue): *althaea officinalis*
 MALISIDXA (malisidxie): malizia
 MALDESIÑO (maldesiñue): madarikazio
 MALETA (maletie): 1. (Adj.) kalamidadea. 2. karga "Suen moduko maletakin esin like esebe eiñ"
 MALETA EIÑ: maleta egin
 MALETASIKU (maletasikue): jaie-tan jateko eroaten den salda bakoa
 MALUTA (malutie) maluta, artaburua estaltzen duen azal an-tzerako orria
 MALLA: 1. maila. 2. nibela, maila
 MALLESTU (mallestue) mailatu
 MALLESTUNA (mallestunie): Ma-llestuta dagoen una "Emootzesu maidxei golpie da mallestunie ederra be badeko oiñ"
 MALLU (mallue): mailu
 MALLUKI (mallukidxe): 1. mailubi. 2. mailu.
 MALLUKI BEDAR (malluki bedarra): potentilla sterilis. Berau pinudietan egoten da.
 MALMA (malmie): *malva sylvestris*. Malma handiari txikitan "opille" esaten zioten eta jan egiten zuten umeek. Aurpegiko garauak kentzeko ona da. Infusinoa eginda urdailerako ere ona izaten da.
 MALMA ERREALA: malma moeta bat
 MAMA: ura, umeen berba da
 MAMALA (mamalie): Zentzun asko es duen emakumea "Ain mamalie asenik etxunat jakin"
 MAMINTZU: mamintsu "Ekarri dabie gasta bat mamintzuaue!"
 MAMIÑ (mamiñe): mami "Estosu ogi mamiñik jaten ala?"
 MAMO EGON: Gorputza lelo lelo edo astuna eduki.
 MAMOALDI: Gorputza astun dagoeneko aldia "Sargoridxeittik edo baiña badeket mamoadi bat gaur!"
 MANDAKO (mandakue): mandako "Arri arri mandako bidxer

Panplonarako.."
 MANDAR (mandarra): mando ar
 MANDALI (mandalidxe): mandali, mandoen inguruan ibiltzen diren euliak "Mandalidxek beño gelduaue as"
 MANDO (mandue): mando
 MANKO (mankue): besamotz
 MANEJAU: erabili
 MANGA (mangie): mauka
 MANGAUTZIEN: maukautsean "Mangautzien egon ga ta otzittu ein ga"
 MANIAU: irteteko apaindu, konpondu "Maistra barridxek maniauko saittue suek"
 MANKAU: zauritu
 MANTA (mantie): manta
 MANSANILLA (mansanillie): *chamaemelum nobile*
 MANTAR (mantarra): haur oiha
 MANTARREKO UME : orpogorri "Batak bost urte eukesan da bestie mantarrekue ondiño"
 MANTEKERO (manterue): mantekero
 MANTEKOSO: mamitsu, "Babak ipiñi daus mantekoso"
 MANTEL (mantela): zamau
 MANTENIDU: mantendu
 MANTILLA (mantillie): txerria hiltzen denean lehenengoz kentzen zaiona zabaldu eta ostean.
 MANTILLA ORRATZ (mantilla orratza): mantila orratz
 MANTOI (mantoye): mantoi
 MANSANILLA (mansanillie): mantzanila
 MANTXU (mantxue): Besoa falta zaiona
 MANTZO (mantzue): otsan "Gure astue mantzue da"
 MANTZOTU: otsandu
 MANUE: txakur eta katoen aurreko anka
 MARAPILLO (marapillue): korapilo
 MARDU (mardue): mardul "Orri mardo marduek eukesan"
 MARDU EGON: mardul egon

MARGARITTA (margarittie): margarita

MARIAU: zorabiatu

MARI MUTILL: mari mutil, mutillekin jolastu eta aker antza den neska

MARIÑERA (mariñerie): andren alkondara


MARIGORRI (marigorridxe): marigorri

MARIGORRINGO (marigoringue): Marigoringo, coccinela

MARIPOSA (mariposie): tximeleta

MARKADOR (markadorra): markador

MARKO (markue): marko



MARKUE
Iru palas eta goian
teilatuan trabesetara
ikusten diren egurrak
KAPIRIDXUEK

MARKAU: markatu, soloetan egiten diren ildoak markatu egiten dira.

MARMARRIEN: marmarrean "Beti marmarren ibilltten dies, nor ikusi aixeittik txarto esan"

MARMITTA (marmittie): marmita

MARRAJO: azpijokoan dabilena "Marrajue alakue, arpeire be estoste begittu!"

MARRA-MARRA: marmar

- MARRO EIÑ: Zorro egin “Marro ei osku eser estakidxen moduen”
- MARROI (marroye): morroi
- MARTI (martidxe): martxo
- MARTIRIDXE: martiri
- MARTITXEN (martitxena): astearte
- MARTXANTERA (martxanterie): bendejera
- MARTXAU: alde egin
- MARUSIÑA (marusiñie): erreputazio txarreko andra
- MASA (masie): ohora
- MASAL (masala): bigun, guri, pottolo
- MASETA: mazeta, mokilak apurtzeko erabiltzen da
- MASKARA (maskarie): karatula
- MASKAL (maskala): janariei buruz bigun, higatu, pasatu.
- MASKALDU : maskaldu
- MASKILLO (maskillue): berez sortzen ez den edozein orbain; “ori da maskillue dekosune arpeidxen”
- MASMORDO (masmordue): mahasmorda+
- MASPASA (maspasie): mahaspasa
- MASPILL: pasatuta dagoen fruta
- MASTRA (mastrie): pataten ahiena
- MASTER (masterra): txirrinken olei eusteko dagoen egurra barrukaldean
- MASTUI (mastuidxe): mahasti
- MASUSTRA (masustrie): mazustra
- MATARRASKA (matarraskie): oramahaia garbitzeko burdinezko tresna.
- MATASA (matasie): mataza
- MATERI (materidxe): materi, pus “Asi dxakon materidxie daridxola ta orduintxik dana pasau”
- MATRAILL (matraillie): matrail
- MATRILLAKO (matraillakue): matraileko “Emoten buat matraillako bat laster espabillaukas”
- MATRAILLASUR (matraillasurre): matrail hezur
- MATRAKA (matrakie): Matraka
- MATXAKA (matxakie): Gari jotzeko makina txikia.

- MATXETA (matxetie): matxeta
MATXIN GARRATZ (matxin garratza): rumex acetosa "Matxin garratza
guk umetan agora sartu ta antxe ebalten geñun bueltaka"
MATZ (matza) : matz
MAYETZ (mayetza): maiatz
ME (meye): mehe
ME BIXI : lander bizi
MEDIKU (medikue): mediku
MEDIXIÑA: medikamendu
MELOKOTOI (melokotoye): melokotoi
MELUS (meluse): kalidade txarreko
MEMELO (memelue): kokolo
MENA : pertsona leuna, ezta, batez ere berbetan; "mena-mena eitten
dau berba orrek"
MENBRILLO (menbrillue): menbrilo
MENBRILLU SAGAR (menbrillu sagarra): cydonia oblongoa
MENDABAL AIXE (mendabal aixie): mendebal haize "Mendabal aixie
dabilienien denpora txarra "
MENDAR: pulicaria dysenterica
MENDI (mendidxe): mendi
MENDIARO (mendarue): mendiario
MENDISALE (mendi salie): mendizale
MENDI TONTOR (mendi tontorra): mendi tontor
MENDRAU : hazi, sendotu, indartu;" ori umioi esiñ da mendrau esetara
be!".
MENGEL (mengela): argal, makal
MENTA: mentha suaveolens. Belar hau infusio eginda purgante gisa
erabiltzen da.
MENTAU: 1. txertatu.2. txerto
MENTU (mentue): mentu, txerto
MENSUS (menuse): gauza eskasa, batez ere jantziez eta janariez esaten
da.
MENSUS ERETXI: mensur eritzi "Mensur eritxi eutzau da estu erosi"

- MERENGE (merengie): merenge
 MERESIDU: merezi izan
 MERIDXENDA (meridxendie): merienda
 MERIDXENDAU: meriendatu
 MERIDXENTA: azkari. Azkari egiteko lehen urdai txatalen bat erreta ogi bitartean edo gazta eta ogia jaten zen. Behar asko egonez gero ogi zatiren bat "amantal poltzilluen" beharrean jateko.
 MERKATU: merkatu, merketu
 MERKE (merkie): merke
 MERKETARI (merketaridxe): merkatari
 MERRU (merrue): argal, txiker
 MESA (mesie): meza
 MESAKUE IXEN: Familien arteko harremanak, norbait hiltzen zenean, familien artean mezak ateratzeko ohitura ahaidetasuna edo adiskidetasunaren adierazgarri.
 MESANOTXE (mesanotxie): gau mahai
 MESEDES: mesedez
 MESKEL (meskela): maskal
 META (metie): meta
 METAU: Belarra metetan ipini
 METALUR (metalure): metal ur
 METU: mehatu
 METXA (metxie): metxa
 METXERO (metxerue): metxero
 MIARMA (miarmie): armiarma
 MIAU: miau, katuaren onomatopeia
 MIAUKE: miauka
 MIERMA (miermie): miarma, aramu
 Miestu: mehaztu "Ulie miestu dxako orri aspaldixen"
 MIETZ: mehatz
 MIKA: mika, txori moeta bat
 MIKATU: mikatu
 MIKETU: mikatu "Jateko gogoik pe esteko, sietz miketute dau"

MIKO (mikue): jakan, gutxi jaten duena

MILLOA: miloi

SIÑ (siñe): zihi "Gurien euesan posalak siñeskuek sien"

SIÑESKOR: siniskor

SIÑESTU: sinistu

SIÑTXIPER IKUSI : gorriak ikusi; "siñtxiper ikusitte nau ni gero"

SIRAUN (sireune): siraun

SIREUN: siraun; koloreen arabera lau moeta ei dagoz

SIRI (siridxe): 1. zihi, juncus effusus. Gariak kentzeko erabiltzen da. Aulkiak egiteko ere erabiltzen zen lehen. 2. ziri. "Sarakada bedarra siridxe sartzen dxakun bedarra es jausteko"

SIRIDXE SARTU: ziria sartu "Siridxe sartu oskue orrek politto"

SIRI MIRI: ziri miri

SIRIÑ: zirin, beherazkoa txahalena eta batez ere.

SIRI-SARA: Hara ta hona ibili eta ezer eskuetatik ateratzen ez duen andrazkoa. Andrazkoentzat bakarrik.

SIRI-SIRI: ziri-ziri, euria egiten duenean indar zera esaten da: "siri-siri botaten dau"

SIRKIÑ (sirkiñe): eskasa

SIRKIÑ EIÑ: berriren bat hartukeran erreakzionatu ez egitea, ezezko erara erabiltzen da gehienetan.

SIRRI (sirridxe): zirri

SIRRI EIÑ: zirri egin

SIRRIKE: zirrika

SIRRI PARRA: Zarra parra, nahastetsua

SIRTZILLUEK: zirtziluak

SISI PASA: Haginak falta eta "s"ren ordeaz "z" egiten denean, atsoa agureak, eta mozkorrak ere batzuetan

SISPUR "Sispurue": zizpuru, hasperen "Sispurue ta kontue ugeri"

SISTRÍÑ (sistriñe): ziztrin

SITXE: sits,2.- karena

SITXEK JAN: sitsak jan "Urte betien armaidxuen euki uas da sitxek jaostes prakak"

SIURRE EGON: ziur egon

SOBRE ALDAMEN: aldamenen gaineko aldamera

SOI (soidxe): soi 1.- Laiatu ondorengo lur arloa "laidxa soidxe" 2.- Lur eta guzti kendutako belarra "Txondorrai ganetik soidxe ipintten dxakon"

SOINKURUTZE (soinkurutzie): txakurren aurreko hankek lepoan egiten duten lotura.

SOIÑEKO (soiñekue): soineko

SOIÑIEN: soinean "Aste betien soiñetik kendu barik dabitt arkondarie"

SOIÑU (soiñue): 1. doinu. 2. trikitrixa

SOIÑUE ARTU : musika segitu "Belarri ona deko onek atuen artzen dau soiñue"

SOKA (sokie): soka

SOKA DANTZA (soka dantzie): soka dantza. Dantzari dantza-ren ostean egiten da. Soka dantza egiteko dantzariak txilinak kentzen dituzte. Aurrekue, atzekue eta irabasidxe egiten dira, gero neskak hautatzen dira, lehengo biei aurrezkuariak eta atzazkuariak "Banango sarra" egiten diete dantzari, gero beste sei neska bildu eta soltari egiten dute.

SOLDAUTZA (soldautzie): soldadutza

SOLDEAU: soldeatu

SOLDU: soldu, zauria enkonatu

SOLI: zoli

SOLI EGON: zoli egon "Soli dau au ia iñor ikusten daben"

SOLO (solue): solo

SOLO ATXUR (solo atxurre): solo atxur

SOLO BARRI (solo barridxe): lurbarri

SOLOMO (solomue): solomo

SOLO SELAI (solo selaidxe): Lautadan dagoen solo ederra

SOLTAU: soltatu

SOLTERU (solterue): ezkongue

SOÑEKO (soñekue): soineko

SOPA (sopie): zopa. Hiru moeta egiten dira: "berakatz sopie", "fideo sopie" eta "pistola sopie".

SOPIE TA ESKONTZIE BERUEN: zopa eta ezkontza berotan

SOPITIE (sopittie): zopita "A-barkak sulotzen sieneien aspittik ipintten dxakien ipingidexe"

SOR (sorra): zor

SORAGARRI (soragarridxe): zoragarri

SORANGA (sorangie): erdi zoroa, neskak "Sasoie dekie txarra oiñ, danak be erdi soranga dabis"

SORATU: zoratu

SORAU: zoratu

SORBATZ (sorbitatza): erreminten aho+

SORBURU (sorburi): sorbalda

SORDUN: zordun

SORGINKERI (sorginkeridxe): sorkinkeria

SORGINYU: sorgindu

SORGIÑ (sorgiñe): sorgin

SORIDXONAK: zorionak

SORIDXONEKO: zorioneko "So-ridxoneko erlojuoi, erosiku nat ba urrengo ara jueten nasenien"

SORIDXONIEN BATEN ETORRI: behingoz etorri, zorionean etorri

SOR IXEN: zor izan

SORITXAR (soritxarra): zori txar

SORITXARRIEN: zoritxarrean "Soritxarrien esan geuntzen"

SORJETA (sorjetie): Josteko era bat

SORKI (sorkidxe): Buruan kargak eroateko ipintzen dena baino ez da

SORO (sorue): zoro

SORRI (sorridxe): zorri

SORRI ABERASTU (sorri aberastue): zorri aberastu "Onak be diru apur bat eiñ dabienien sorri aberastu dies"

SORRI BISTU: zorri piztu, sorri aberastu

SORRIEN EUKI: zorretan euki "Emen dakatzut sorrien euki otzuanb oridxue"

SORRIKETAN IBILLI : zorri harrapatzen ibili

SORRISTO (sorrístue): zorritzto "Iñundik iñora es aben gure an geratu nintten"

SORRO (sorrue): 1. zorro. 2. sarbu

SORROKA EIÑ: maltzurkeria egin

SORRO SORRO: ixilean, ideia maltzurrekin "Sorro sorro ebillen da askenien be berak gure abena ei aben"

SORROSTARRI (sorrostarridxe): zorrotzarrri

SORROSTU : zorrotzu

SORROTZ (sorrotza) zorrotz, pertsonak ere min bizkorra dutenean

SOR SOR EUKI: solduta euki

SORTU: sortu

SOSEGAU: baretu

SOSO (sosue): 1. zozo. 2. geza

SOSOLO (sosolue): mozolo "Esteko sustantzidxaik sosolue alakuek"

SOSONGO (sosongue): mozolo

SOSONGA (sosongie): mamala "Estakitt sosonga antza es tan ori"

SOSTENIDU: eutsi

SOSTOR (sostorra): kutsu gaitzeskorreko diminutiboa; "ume sostor bat".

"sostor oi!". "ume sostorrok!... niri burle eitten"

SOSTROPO (sostropue): ebakiko arbolaren sustraia lur azalean dagoena



ARBOLA EPERDIDXEK,
SOSTROPUEK

SOTINKE: zotinka

SOTIÑ (sotiñe): zotin, negar zotin

SOTZ (sotza): zotz

SU (sue): su

SUABE (suabie): leun

SUBE (subie): suge; "sube berdie ona ixeten da, sendue". Sama mehea daukan sugea arriskutsua izaten da, txikia bada arriskutsuagoa handia baino. Pikatuz gero kasik igerri ez.

SUBEKI (subekidxe): Sugekia "Angillak subekidxeek dies"

SUBI (subidxe): zubi

SUBILINDARA (subilindarie): sugelandara. Sugelandaretan arrak eta emeak bereizten ei dira gehienetan emeak izan arren.

SUBILLOSTE (subillostie): supazter "Afalostien gurien errosaridxue erresetan san da gu mutikotxuek, ainbat bider lukartzen nintxen subillostien"

SU BURDIÑ (su burdiñe): su burdina

SU-BURU (su-burue): su gaina

SUE EMON: sua eman

SUE ILLE: su hila

SUEK HARTU: suak hartu

SU KANPEYE: Nonbaiten sua dela iragartzeko jotzen den kanpaia.

SUeltu (suelvue): suelto

SUERTAU: suertatu

SUERTE (suertie): zorte

SUERTE TXARREKO (suerte txarreku): zorte txarreko

SUGARRI (sugarridxe): sugarri

SUGELANDARA (sugelandarie): sugelandare

SUINGEI (suingeixe): suhigai

SUIÑ (suiñe): suhia

SULESKO (suleskue): zulezko, "Ekatzu sulesko koillarie"

SULO (sulue): zulo

SULOTU: zulatu

SU ONDO (su ondue): sutondo

SU OSTE (su ostie): su oste

SUR (surre): sudur

SURDA (surdie): basurdearen ilea

- SURDEI (surdeidxe): lantzurda
 SURI (suridxe): zuri
 SURINGO (suringue): zuringo
 SURITTASUN (surittasune): zuritasun
 SURISKE (suriskie): zuriska "Erosi uan jakie suriskie da"
 SURITTU : 1. zuritu, azala kentzea. 2. zuritu
 SURI TXIKI (suri txikidxe): sagar moeta bat, txikia eta goxoa.
 SURMINTXE: ganaduaren surtziloak "esate baterako beidxe aixutzen danielen, surmintxetik eldu, ague sabaldu eta botillatik mansanillie emoten dxakie"
 SURRUMURRU (surrumurrue): zurrumurru
 SURRUN (surrune): sabaiko zuraje
 SURRUT: zurrut "Eraixu esnie surrut"
 SURRUT EIÑ: zurrut egin
 SUSA (susie): calocybe gambosa, perretxiko mota bat
 SUSARA: susara, behien zelo aldia
 SUSA GORRI (susa gorridxe): Zuza gorri
 SUSALEKU (susa lekue): zuza leku, haitzean egoten dira gehienetan
 SUSEN (susena): zuzen
 SUSENDU: zuzendu
 SUSEN EIÑ: zuzen egin
 SUSENIEN: zuzenean
 SUSENTASUN: zuzentasun
 SUSI (susidxe): zuzi
 SUSTER (susterra): sustrai
 SUSTER MUKUR (suster mukurre): arbola edo beste landareren bat botaz gero lurrean geratzen den ipurdia
 SUSTO (sustue): ikara
 SUTE (sutie): sute "Or mendidxen estakitt ba sutiek estausen"
 SUTEI (suteidxe): Sutei
 SUTONDO (sutondue): sutondo
 SUTU: sutu
 SUTUNDU: zutundu
 SUTUNIK: zutik

T

TABA (tabie): Taba

TABAKO (tabakue): nicotiana tabacum

TABAKORRI (tabakorridxe): tabako orri, tabakoari orokorrean esaten zaio "Esixu ainbeste tabakorri erre"

TABERNA (tabernie): taberna

TABERNALARI (tabernalaridixe): tabernalari "Gurien baten batzuk badaus tabernalardixek diesenak be"

TABERNARI (tabernaridxe): tabernari

TADXU (tadxue): taiu, itxura "Ori on tadxue daruunana"

TAJADA (tajadie): xerra

TAJADERA (tajaderie): taxadera, arotzen erreminta

TAKA TAKA: taka taka, ume berba, ibiltzeari esaten zaio.

TAKARRARA (takarrarie): Kolpea "Belaunas maidxe jo ot da nik artu ot takarrarie"

TAKET (taketa): taket

TAKO (takue): Egur zatia, esate baterako ate osteetan jartzen dena, edo aukiei loka daudenea jartzen zaiena. 2.,- Lur atala ere "Tako bat erei osu"

TALENTO (talentue) : gogo

TALENTOSO (talentosue): gogotsu, azkar

TALO (talue): talo

TALO PARA (talo parie): talo pala



TALOPARIE

- TAMAÑU (tamañue): tamainu, tamaina
 TANBOLINTTERO (tanbolin-tterue): tanbolindari
 TANBOLIÑ (tanboliñe) danbolin
 TANBOR (tanborra): txirrinken danbor
 TANGA (tangie): tanta "Euri tangak abidxetan daus"
 TANTAI (tantaidxe): arbola handia
 TANTAI BEDAR (tantai bedarra): patata eta arto artean hazten den belar moeta bat
 TANTAKA (tantakie): Tanta. "Oridxo tantakie jausi dxatzu"
 TAPA (tapie): 1. Lapikoen tapa 2.- Mantak
 TAPABOKA (tapabokie): Tapabo-ka "Otza eitten dau ta artuixu tapabokie"
 TAPADUN (tapadune): tapadun
 TAPAU : estali
 TARDAU: berandutu
 TARIÑ (tariñe): Txori moeta, erdaraz verdecillo
 TARRAS: narraz "Sakue tarrasien daroie"
 TARRAS ERUEN: narraz eroan
 TARRASIEN: narrazean
 TARRASKA: narrazka
 TARRASKARA (tarraskarie): narrazkada "Tarraskara batzuk eiotzies baiña astune da ta esin ixen dabie eruen"
 TARRATARA (tarratarie): tarratada "Taratara batzuk euki arren, ondiño ebalikus amantalak"
 TARRATOLA (tarratolie) : huts eta arola, intxaurrei buruz esaten da, tarratolaka jolastu ere egiten zuten
 TARTAMUTU (tartamutue): berbaltu "Bata gorra da bestie tartamutue dies
 TAS TAS EIÑ: jo, umeen berba da
 TATO: salto, umeen berba da
 TATO EIÑ: salto egin, umeen berba da
 TAUKI (taukidxe): tauki
 TAUKIKE EGON: lokuluskaka egon "Gabien lo gutxi eiñ dde edo, jarritte egon dan denpora gustidxe taukike egon da"

- TAUPADA (taupadie): taupada
TAUTI(K) PES: tutik ere ez, ezer ez egiteari, kolperik ere ez emateari
"Ikusi geratu barik nabillega, ta suek tautik pes"
TEJABANA (tejabanie): tejabana
TEJADA (tejadie): texada, arotzen erreminta
TEJAMANA (tejamanie): tejabana
TELA (telie): bits "Uratzai ganien telie eitten dxako" 2.- Oihal
TELEBISIÑO (telebisiñue): telebista
TELLA (tellie): teila
TELLA PERRETXIKO (tella perretxikue): russula emetica
TELLATU (tellatue): teilatu
TELLATUPEYEN: teilatupean
TEMA (temie): seta, tema "Estok ta badok arratzalde gustidxe teman daruosue"
TEMAN IBILLI : eztabaidan, teman ibili
TEMATI (tematidxe): temati "Es ai tematidxe ixen, badala diñuat"
TEMATU : tematu "Jakin ba alantxik sala, da tematu eiñ bier!"
TEMOSO (temosue): temati
TENASA (tenasie): tenaza
TENEDORA: sardexka
TENESA (tenesie): tenaza "Suten ebalitte gori gori parau san tenesie"
TENPLAU TENPLAU: lasai, frankil "Kafetxo bat artu da tenplau tenplau juego gosak"
TENPLE: Ez hozt eta ez bero, tenplea "Selan dau kafie? - Tenplean"
TENTAU: dendatu
TENTE POSTE (tente postie): zutabe "Auxe tente postioi be estakitt ba serenak jan bier estaben"
TERRENU (terrenue): terreno
TERTZIDXOS: sasoiz "Satos gero beskeitteko tertzidxos"
TIKI TAKA: tiki taka, ume berba, pausu emata
TILO (tilue): ezki
TIÑEKO (tiñekue): zurezko kajoi batzu ganaduari jaten emateko
TIPI TAPA: tipi tapa. 2.- abiatzea "Artu jeneruoi da tipi tapa politto politto"

abidxau giñen”

TIRAGOMA (tiragomie): tiragoma

TIRANTE (tirantie): zerraren tiranteak

TIRETU: tiratu “Tiretu errime ia kentze ostesun”

TIRISIDXE: tirizia

TIRO EIÑ: tiro egin

TIROK: “erdu”ren parekoa dugu hau; tirok, tiron, tirosu, tirosue+

TIRRIÑ: Ume negarti gogaitkarria 2.- Ganorabarik tatarraz dabilena “Tirriñe daridxola ibillten da”

TIRRIÑ TTE TARRAN: Ganora-barik ibiltzea

TITI (titidxe): diti

TITI PUNTA: diti punta

TITIDXE EMON: ditia eman

TITILI TOTOLO IBILLI: Ez ur eta ex gatz ibiltzeari

TITTERA (titterie): ditare

TO: Esakera bat

TOKAMEN (tokamena): Banake-tetan parte bat “Nire tokamena emoidesue da banoye”

TOKAU: tokatu

TOKI (tokidxe): toki

TOKILLA (tokillie): tokila

TOKOR (tokorra): gogor “Kure tokor tokor dau oingo udan”

TOLOSTU: tolestu “Tolostute sartuixues erropak armaidxuen”

TOMATE (tomatie): tomate

TONTA (tontie): mamala

TONTATU: lelotu

TONTO BURU EIÑ: Lelo buru egin, ezer ez dakienarena egin.

TONTO MOSOLO (tonto mosolue): tonto mozolo

TONTOLAPIKO (tontolapie): ton-tolapiko

TONTOR (tontorra): tontor 2.- Gorputzean haunditua “Tontortxo bat urte oste esku ganien”

TOPAU : topatu

TOPE EIÑ: tope egin “Ixe ixte arkal tope eitte u”

TOPEKA: topeka "Orrek areittuok beti topeka dabis"

TOPIÑA (topiñe): topina, lurrezko lapikoa beheko suan babak eta egiteko.



TOPIÑE

TOPIÑE EGON: "lurra topiñe egon" busti lurra

TOPOLIÑO: Tabernetan egoten ziren edalontzi azpi sendoak

TORNEU: torneatu

TORTOLA (tortolie): tortola, verenda murielis

TOSTADA EGUN (tostada egune): haratuzteari esaten zaio

TOTAL : guztiz

TOTO (totue): sein, umegorri; umeen berba da

TOTOLO: Lodia dena

TOTOLO TOTOLO: Potolo potolo

TRABA (trabie): oztopo

TRABA EIÑ: traba egin

TRABAK IPIÑI: trabak ipini "Estosu ikusten or egon da traba eittotesune?"

TRABES IPIÑI: trabez ipini

TRABILLA: Bearria, hebilla, zapata hebilla

TRAGAU: irentsi. 2.- Erahil "Ori eitten bostek tragaukaut"

TRAGU (trague): zurrutada

TRAGU EIÑ: drink egin

TRAMANKULU (tramankulue): tramankulu "Olako tramankulu luze bat san, da aras salto eitte abien"

TRANGA (trangie): tranka



TRANGALA

TRANGABEL (trangabela): trangadel, egurra pikatzeko edo mailuz jotzeko erabiltzen den enborra

TRANGADERA (trangaderie): trangadel

TRANGO (trangue): bidezuloak eta bidetontorrak

TRANKILL: lasai

TRANKILLO (trankillue): Lasai

TRANPA (tranpie): tranpa

TRANTZITTO (tranzittue): Transito

TRAPU (trapue): trapu

TRASTE (trastie): traste

TRATAU: tratatu

TRASTERIDXA (trasteridxie): tres-neria

TRATULARI (tratularidxe): tratulari

TREBERE (treberie): trebede "Beko suen ganien topiñe ipintteko aspidxenn treberie ipintten dxakon"

TREBOLA: trebola

TREMESA: tremesa, sahez egiten den ogia

TREPETXO: Tresnei deitzeko modu bat, batzuetan, ez beti modu iraingarrian ere "Ideosue da gizona eitten dau gausa bakotzik, ikusgarridxe, da eukin be danetarako trepetxuek dekos" "Kendixen onek trepetxuok emendik"

TRIBULIDXE:zaldiekin erabiltzen ziren karroak

TRIKILIMAÑU (trikiliñañue): oztopo, traba

TRIKITRAKA (trikitrakie): karrakaldo



TRIKI TRAKIE

1.- Atzean ESKUTIÑAK

2.- Atzekaldeko kirtena GRADIADORA

3.- Lurrean sartzen direnak ORTZAK

TRILLADORA (trilladorie): garia jotzeko makina

TRIPA (tripie): sabela

TRIPAKALLU (tripakallue): tripakailu

TRIPAKARA (tripakarie): tripakada

TRIPAKI (tripakidxe): tripaki

TRIPASPIKO: Tripa azpiko

TRIPAUNDI (tripaundidxe): tripontzi

TRIPOTXA: tripotxa

TRISKANTZA (triskantzie): Per-tsona, animali edo denporaldiak kalteak haundiak egitea. "A-seridzek pentzetot ollotekidxen triskantza galanta ei otziela"

TRISKAU: Erasoren bategatik zehatz alperrik galdu "Andikoko txalak solue triskaute itxi oskue"

TRISKILL (triskille): saskil

TRISTE (tristie): triste

TRISTE EGON: triste egon

TRISTESIDXA: tristezia "Iño be esta ikusten ausuen, au au tristesidxe sartzeko neikue da"

TRISTETU: tristetu

TRISTURA (tristurie): tristura

TROKA (trokie): troka, baranku

TROKARRU (trokarrue): Trokaren azpiakaldean egoten den arro unea

TROKATU: trokatu, bihurtu

TROKOTZ (trokotza): Nanu, itsusi

TRONGELA (trongelie): trongela, egurra mozteko arloa

TRONGO (trongue): enbor

TRONPA (tronpie): Soiñu egiteko tresna, zarata berezia dauka 2.- Adarra jotzea ere "Neuri begittute tronpa joten eh"

TRONPETA (tronpetie): Tronpeta 2.- Bete bete, ederra dagoena "Ori gastetan basa neska trnpetie"

TRONPO (tronpue): Tronpo, Jolastekoa egurrezkoa, kordelaz batu eta askatzerakoan txirimolaka hasten zen honela gehien iraun erazten ziona garaile.

TRONTZA (trontzie): trontza

TRONTZO (trontzue): Zati handia adierazteko

TROPE (tropie): trope, baragarri

TROTXA (trotxie): Gari aleak gordetzen zireneko gela txikia

TRUKE (trukie): Truke

TRUK ESKONTZAK : familia biko neba arreben artean egiten direnak

TRUKUTZ (trukutze): arbola edo beste landareren bat botaz gero lurrean geratzen dena

TRUMOI (trumoye): trumoi

TRUNGUTZ: Ondo, "Arto trungutzek edo artondue"

TUPIDXE: oletako mailu mekaniko handia

TURROA (torroie): Turroa

TUTU (tutue): txiki, txatxar. 2.- majina

TX

TXABILLA (txabillie): Artilezko haria egiteko tresna, txikia eta egurrezkoa, bueltaka ibiltzen da, ganekaldean txapel antzerakoa dauka. Orain ere egiten da txabilan "Goruetan andrak da txabillan gisoneskuek"



TXABILLIE

TXABOLA (txabolie): txabola

TXAFLAN (txaflana: txafan

TXAIÑTXURRIKE: txankurrika

TXAKA TXAKA: Ume berba= taka taka. 2.- Oines pauso arinas joatea

TXAKARA BATEN: Abiada baten " Arratzaldien txakara baten ekarriko tzut biosune"

TXAKETA (txaketie): jaka

TXAKETENA: Birikietako antura (edema pulmonar). Odola oxigenorik gabe geratzen zen. Odola xurgatzeko usenak jartzen zizkioten gaixoari, geroago "sangria" egiten zen.

TXAKILLAN EIÑ: larrutan egin.

TXAKOLIÑ (txakoliñe): “Len matza mentau eitten geñun, orrek indder geidxau eukitte aben, emen etxostien euen mastoidxe a obie san, gogorraue. Mastoidxek urtien birriten atxurtu ein bier ixeten san, bata udabarridxen da gero Agostu askenerantza. Ondo eldute egon bidau matzak, batu da metro bi inguruko tiñekuen, ankakin apurtzen san, aspidxen olak eukitte abesan, iru edo lau gixonek ekutte eutzien, gero sapaldu da apurtuikuen, se matza ondo apurtu bida, prentzara botaten san, prentzau da gero barriketan sartzan san, irakitten egoten san hillebete pasautxuen da tapau eitten san, da sagardauen moduen ganetik ideltzuaz edo bustin lurre da pekotzaz eiñiko masias tapetan san, au esan bringetan da etxako aixeik sartzan. San Blas inguruen barrikie kanbidxau eitten da, udabarridxen Garidxuman edateko edo enbotilletako moduen egoten san. Ondarrien kantara bat inguru geratzen san. Abaiñon txakoliñek ugeri euesan: Eskolakue, Arroque, Garratzekue, Gasteiñetza, Martena, gurie Abaiñobieskue, da Garidxuman erromeridxaik be esan egoten da denpora ona eitte abenien jentie ugeri etorten san

TXAKUR (txakurre): txakur

TXAKUR ANDI: txakur handi, hamar zentimoko txanpona

TXAKUR ESTUL (txakur estule): txakur eztul, eztul gogorrari esaten zaio

TXAKUR TXIKI (txakur txikidxe) Txakur txiki, bost zentimoko txanpona

TXAL (txala): xahal

TXALA EIÑ: xahal egin

TXALA ENTREGAU: Txahala, saldu zaion jabe berriari, eraman

TXALMA (txalmie): txalma, astoei, eta astotzarak ipini baino lehen jartzen zaien manta.

TXALO (txalue): txalo

TXALO EIÑ: txalo egin

TXALOKA (txaloka): txaloka

TXALOPIN TXALO. Umeen berba, txalo egin

TXALSEKOR (txalsekorra): txalzekor

TXAMARRA (txamarrie): Jaka moeta, baina es oraingo “chamarra” esateko, lehengo zaharrek jakeren bati esaten omen zioten.

TXANDA (txandie): txanda

TXANDAR (txandarra): Txandal
 TXANDIE ARTU: txanda hartu "Lenau juengo nas da neuk artukotzut txandie etorten seyenerako"
 TXANKA (txankie): txanka, hanka 2.- Kartetan, sota
 TXANKA MEYE: txanka mehe "Txanka meyek da goidxek sabalak dxekesak orrek"
 TXANKETAKO (txaketakue): txanketan ematen den kolpea
 TXANKLETA (txankletie): txankleta
 TXANKULU (txankulue): 1. Abarken antzerako aoinetakoak, ez dute kordelik edukitzen. 2.- Egurrezko eskalapoinak
 TXANKURRIKE : txankurrika "Ainkie ideltzau otzie, makuluk be estotzie emon da txantxurrike dabil"
 TXANPIÑO (txanpiño): Aga-ricus campester
 TXANTEL (txantela): 1. txartel.
 TXANTXAN (txantxana): mezatara joateko azken kanpaiakada
 TXANTXANGORRI (txantxan-gorridxe): Txori moeta, papar-gorria
 TXANTXANIKO (txantxanikue): bizkortasuna eta arintasuna adierazteko erabiltzen da gonbarazioetan; "txantxanikuen moruen juen da bixikletan". "gixona, txantxanikuen moruen saus ondiñon bat-ta"+
 TXANTXAR (txantxarra): txantxar ; "txantxarra deko"
 TXANTXIKO (txantxikue): Buru arina
 TXAPA (txapie): txapa
 TXAPARRO (txaparrue): ume; umeen berba da
 TXAPEL (txapela): txapel
 TXAPEN-TXAPA : gainezka; "au-tobuse txapen-txapa etorri da", "tabernie txapen txapa beteta dau"
 TXAPIÑ (txapiñe): txapin
 TXAPIÑO (txapiñue): galtzerdi gisa oinetan erabiltzen zen ehun zatia gero abarkak janzteko
 TXAPIÑOKI (txapiñokidxe): txapinoa egiteko erabiltzen zen ehuna
 TXAPITTULA (txapittulie): ipingi
 TXAPLATA (txaplatie): berritsu, gogaikarri
 TXAPLIGU (txapligue): Bolande-ra

TXAR (txarra): txar
 TXARA (txarie): arbola landarak eta sasiak dauden leku
 TXARARTE (txarartie): Txara artea
 TXARAKILLA (txarakillie): maratila
 TXARAMELA (txaramelie): txaramela, maratila
 TXARATU: Landara bereziz eta arantzez arloa betetzen denean "Basue sietz txaratu dxaku"
 TXARATILLA (txaratillie): maratila
 TXARRANTXA (txarrantxie): Ga-nadua eskubilatzeke 2.- Ehuna orrazteko eskubila.
 TXARRI (txarridxe): txerri
 TXARRI AGIÑ (txarri agiñe): desbideratuta irteten duen hagina
 TXARRI ASKA (txarri askie): txarri aska
 TXARRI EME (txarri emie): arkala
 TXARRI ERREGALU (txarri erregalue): Etxean txarria hiltzen denean senide eta auzokoei opari gisa eramaten zaizkien odoloste, urdai solomo etab.
 TXARRI ESTEGU (txarri estegue): txarriboda
 TXARRI GARBITZE (txarri garbitzie): Txerria hiltzen denean lehenego erre eta gero moltzoaz garbitu egiten da. Barruak ere garbitu egiten zaizkio,
 TXARRI GOBERNU (txarri gobernue): Txarri gonernua
 TXARRI ILTTE (txarri ilttie): txerriboda
 TXARRIKERIDXA (txarrikeridxie): txarrikeria
 TXARRIKI (txarrikidxe): txarriki, txarriak ematen duen okela
 TXARRI KURIDXOSO (txarri kuridxosue): Bere neurrian garbia den txarria
 TXARRITEGI (txarritegidxe): txerritoki
 TXARRITTU: txarritu 2.- zikindu
 TXARTASUN (txartasune): txartasun
 TXARTAU : abarrak puntetatik moztu, luze laburrean guztiak berdintzeko eta besakadetan bildu ahal izateko.
 TXARTO: txarto

TXATAL (txatala): txatal "Ogi txatal bat emoidesu mesedes"

TXATAR (txatarra): txatar

TXATXA: fruta, umeen berba da

TXATXALA (txatxala): Berritsua den andra. Berritsua den gizona txotxolo.

TXATXUNLEIRIDXA (txatxunleri-dxie): Harrokeria

TXATXUR: txatxur; umeen hagin en urtekera, umeen berba da

TXEPETX: (txepetxa) epetx. "txepetxak Ama Birjiñiei begitten korotza eiutzen, da txinyorak eiutzien argi, ta bustenikeriek ei aben ure ekarri, ta garbitu eiutzen begidxe"

TXERA (txerie): txera "Aspaldixen ikusi barik eta orrek ei eutzie arkali txerie!"

TXERA EIÑ: txera egin

TXIBILORA (txibilorie): *Bellis perennis*

TXIBIRITTA (txibirittie): *Bellis perennis*

TXIBIRITTALORA (txibirittalorie): *Bellis perennis*

TXIBISTUN (txibistune): Prakak gerrian gainetik josita edukitzen dituzten trabilak, handik gerrikoa pasatzen da.

TXIBITTA (txibittie): babak lekatzeko tresna, baita lihoa jotzeko ere. Alde bietan ugela jartzen zitzaion. Alde batetik eldu eta jotzen denean babak lekatu egiten dira, lihoa astindu.

TXIDER (txiderra): txidar, *Vicia sativa*

TXIKI (txikidxe): txiki

TXIKIERDI: (txikierdidxe): Guztiz txikia ez dena.

TXIKIÑA (txikiñie): txikina

TXIKITO (txikitue): txiki

TXIKI TXIKI EIÑ: txiki txiki egin

TXIKO (txikue): Behorkume

TXIKUE EIÑ: Behorak auma egin.

TXIKOL (txikola): hazien oskol hutsak

TXIKORIE: *Cichorium intybus*. Lehen erein egiten zen

TXILIBITTO (txilibittue): txilibito 2.- zakil

TXILIDXO (txilidxue): txilio

TXILIDXO EIÑ: txilio egin "Neu ixen nas arratoie ikusi ot da txilixo ei ot"

TXILIDXOKA: txilioka

TXILINDRO (txilindrue): alper harri



ALPERRA eta
TXILLINDRUE

TXILIÑ (txiliñe): txilin

TXIMEL (tximela): berdie deritzon belar moetaren lorea

TXIMINIDXA (tximinidxe): tximinia

TXIMIÑO (tximiñue): tximino

TXIMISTA (tximistie): tximista

TXIMOTXA: tximotxa, txori moeta bat

TXIMUR (tximurre): tximur

TXIMURTU : tximurtu

TXIN: Ume berban dirua

TXIN TXIN: Hau ere ume berban dirua

TXINBERA (txinberie): karabina, txinbera

TXINBO (txinbue): txinbo

TXINDURRI (txindurridxe): inurri

TXINDURRI BEDAR (txindurri bedara): Polygonum persicaria

TXINGA (txingie): Burdinezkoa astuna, apostuak egiteko

TXINGER (txingerra): txingar "Surteko txingerrak baiño berueu sa"
 TXINGETA (txingetie): manila
 TXINGOR (txingorra): txingor
 TXIN-TXAUN (txin-txaune): zibua
 TXIN-TXAUNKE : zibuka
 TXINTXILLERIDXA (Txintxileri-dxe): Kinkaileria "Salgai dausen gausa melusek"
 TXINTXIRRIÑ-TXANTXARRAN: Narrazean edo ganora asko barik ibiltzeari deitzeko beste modu bat.
 TXINYOR (txinyorra): 1. txindor, txori moeta bat. 2. begitxindor; ateko giltza gauzez kanpoan utzita biharamonean begian ipinita kendu egiten da
 TXINYURRI (txinyurridxe): inurri
 TXINTXILLA MAKATZ (txintxilla makatza): makatz moeta bat
 TXIÑTXIMORRIDXAU : bero edo hotzagatik kikildu
 TXIÑU (txinue): Kafea irestekoa
 TXIPIROI (txipiroye): txipiroi
 TXIPLI-TXAPLA: txipli-txapla, ur azalean golpeak emakeran esaten da
 TXIPRISTINYU: zipriztindu
 TXIPRISTIÑ (txipristiñie): zipriztin
 TXIRIKILLA: txirikila, jolas moeta bat. Duela hogeitamar bat urte inguru bere erakargarritasuna gal-tzen hasi zela. Garizuman gehien bat jokatzan zen haur eta kozkonduagoek ere. Hauexek ziren behar zirenak: "txirikilla", hogeitaz inguruko zotza puntak zorrotz zituena. "makillie", metro erdi inguruko makila. "petue" lurrean egindako borobilune bat, bertan "txirikilla" sartu behar zen.. Jokoa atal bitan banantzen zen jokua, argitu behar dena zera da: jokua zuzentzen zuena "txirikilleroa" izaten zen, bera peto barruan egoten zen eta petotik ksnpora jaurtikitzen zuen txirikilla makilaz jota, eta jausten zen lekutik borobilean edo petoan azartatzen zuen partaidea, bera izaten zen txirikilleroa, bertara txirikilla sar ez zedin oztopoak jartzea zilegi zen, hau da jertsea edo beste zerbaitekin bidean geratzea. Bigarren atala beste hau izaten zen: Berriz txirikilla petoan jartzen zen eta zegoen harritik, ze petoan maila bat egoten zen, eta handik ahal bait urrunen bota behar zen, distantzia makilaz neurtzen zen,

urrunen botatzen zuenak ira-bazien zuen.
 TXIRI TXIRI: Isil isilka inork sentidu ez egiteko eran ibiltzea.
 TXIRKOLA (txirkilie): Txingorra, elurra hasten denean abiatzen duena "Edur txirkolia abidxau dau"
 TXIRLA (txirlie): txirla
 TXIRLORA (txirlorie): txirlora
 TXIRRINGA (txirringie): txirringa, adibidez burdiaren egurrezkoak "Burdi txirringakin maidxek eitten dabies"
 TXIRRINKOLA (txirrinkolie): txirinbuelta
 TXIRRINKOLAN : biribilkolika
 TXIRRIÑ: txirrin
 TXIRRIÑAN : txirrian, borborka "Sulotu da ta oiñ urek txirriñan urtetan dau"
 TXIRRITOLA (txirritolie): huts eta arola
 TXIRRI TXIRRI (txirri txirridxe): txirri txirri
 TXIRTE (txirtie): legarra
 TXIS BEDAR: Belar moeta
 TXISPA (txispie): txinparta
 TXISTARA EIÑ: Onom. Norbaiti deiadar egin.
 TXISTI(K) PES: tutik ere ez "Jakín ddau bai txarto einyabena da txisti pe estau esan"
 TXISTU (txistue): txistu
 TXISTUKE: txistuke
 TXISTUKE EIÑ: txistuke egin "Ume lotzabakuorrek estoste ba txistuke eiñ!"
 TXITA (txittie): txita
 TXITXI (txitxia): okela, umeen berba da
 TXITXIBURDUNTXI: txitxi burduntxi, aratuzte aurreko igandean egiten da.
 TXITXIMURKADA (txitximurkadie): txatxamarkada
 TXITXIMURKE: txitximurka
 TXITXIMURKE EIÑ: txatxamarka egin
 TXIXE: txiza

TXIXE EIÑ: txiza egin

TXIXEKUE: Giltzurrinetako kolikoa, baita prostata-ri ere honela deitzen zioten lehen.

TXIXE POSU (txise posue): txiza pozu

TXIXESTU: txizestu

TXIXETI (txixetidxe): Txizati

TXIXONTZI (txixontzidxe): txizeti

TXOKANTE (txokantie): Mire egitekoa dena, arraroa dena "Esties gaur etorri gausa txokantie da"

TXOKAU: Mire egin, arraro egin. "Txoketan dxata suek eser es esatie"

TXOKO (txokue): txoko

TXOKOTA : zotin

TXOLET: Kirtendun ontzia, lurrezkoa edo metalezkoa, ura edateko edo esnea nuertzeko.

TXOLOKOTA : zotin

TXOMIN BEDAR (txomin bedarra): Oxalis latifolia. Soloko belar parasittoa da.

TXONDOR (txondorra): txondor "Txondorra eitten san ba lelengo kargeu ietten san adarras, bueltan bueltan, seiñ dde, puntie sorrotz sorrotz da, gero egurre akabetan sanien tapeu eitten san irias edo orbelas, gero soidxe ipintten dxakon illara bi bueltan, barrenien, da gero lurras tapau. Puntatik emoten dxakon sue. Ha egurre garraik ikusi barik egosten san, egosi. Barreneraiño jueten sanien sue ba iketza eiñdde euen. Beste batzuk aundidxe ixeten sien, arek baso bat botaten sanien da eitten sien pago mukurrekin dde, neu be ibillitte neu alakon bat kargetan, idxe tonelada batekuek ixeten sien, alako baten kargetan sien. Arekin baldo iketza eitten san".

(Txondorra egiten zen, bada, lehenego kargatu egiten zen adarrekin, buelta, zein da, punta zorrotz zorrotz eta, gero egurra bukatzen zenean estali egiten zen ira edo orbelez, gero soia jartzen zitzaion ilada bi barrenean, ondoren lurrez estaltzen zen. Puntatik ematen zitzaion sua. Egur hura garrarik ikusi gabe egosten zen, egosi. Barreneraino joaten zenean sua, ikatza eginda zegoen. Beste batzuk haundiak izaten ziren,

haiek baso vbat botatzen zenean eta egiten ziren pago mukurrekin eta, neu ere ibilita nago halakoren bat kargatzen. ea tona batekoak izaten ziren, halakoren batean kargatzen ziren. Haiekin baldo ikatza egiten zen.

TXONTA (txontie): txonta

TXOPITIE: txopita

TXOPO (txopue): makal. Gurdika-jarako ona ei da.

TXORI (txoridxe): txori

TXORIBURU (txoriburue): txoriburu 2.- Buru gutxi duena

TXORIKARDU (txorikardue): Bot. Diente de leñ

TXORI IKESTEN IBILLI: Udabe-rrian txoriek umak egiten dituz-tenean habiak bilatzera joan.

TXORI KOPETA (txori kopetie): Buruan umeei egiten zaien txoria

TXORIKUMA (txorikumie): txorikuma

TXORIMALO (txorimalue): txorimalo

TXORI MATZ (txori matza): humulus lupulus. Gerra amaitu eta ostean tabakoaren orde zerre egiten zen; mutikoen artean ere erretzen ei da.

TXORIXO (txorixue): txorizo

TXORKO (txorkue): txorko, soto

TXOROKILL (txorokille): txorokil, artoa urkuldu eta geratzen zen

TXORONGO (txorongue): txorongo

TXORRO (txorrue): txorrota

TXORROSTADA (txorrostadie): txorrotada "Botaixu onaixe esne txorrostadatxon bat"

TXOR-TXOR: berba atertu barik egikeran esaten da "txor-txor" dabiltzela berbaz.

TXOTENA: txotena

TXOTINKE: zotinka

TXOTIÑ (txotiñe): zotin

TXOTO (txotue): Txanoa

TXOTXO (txotxue): mutiko

TXOTXO PRAKAK: Mutiko barregarri trastoia

TXOTXOLO (txotxolue): 1. txotxolo. 2. berba asko egiten duena

TXOTXOLOKERIDXA (TXotxolo-keridxie): txotxolokeria "Estekosu sasoi
txotxolokeridzak esaten ibillteko.

TXOTXONAK EIÑ: komeriak eta egin ahalak egin zerbait lortzeko,

TXOTXONAK ESAN : kristonak esan, bereak eta bost esan

TXUNTXUR (txuntxurre): puntan, mukuru "Ondiño be akordetan nas beiñ
astotik bera jausi da artu naberen epertxuntxurrekuas"

TXUNTXUR IPINI: ganez egin, puntan ipini

TXUPAU: milikatu

TXURKU (txurkue): Galtzen gainerik jastan ziren beste galtza zahar pare
bat "Jantzixus txurku batzuk ganetik"

TXURINGA (txuringie): zuringa

TXURRU TXURRU: txurku txurku

TXURRU TXURRU EDAN: txurku txurku edan.

U

UASID XO (uasidxue): igela

UBIDE (ubidie): ubide

UDA (udie): uda

UDABARRI (udabarridxe): udaberri

UDAGOIXEN: udagoien, udazken

UDAGUEN: udagoien, udazken

UDXE: oi

UESABA: ugazaba

UESANDI (eesandidxe): Uraz handik, erreka bestalde dauden lurak,
Mendiolako auzune bat.

UGALASIXO (ugalasixue): igela

UGASID XO (ugasixue): igela

UGASIDXUENA EIÑ: Saltoka ibiltzea

U(G)EL (ugela): uhal

UGER (ugerra): uger "ume uger au" (ume uger hau). Erdoi

UGER EIÑ: igeri egin

- UGERI : ugari
 UGERITTASUN: ugaritasun
 UGERLAR (egerlaridxe)!: igerlari
 UGERTU: ugertu, erdoildu
 UGESABA: ugazaba
 UIDXE: ui
 UKALITTUE: eukalipto
 UKETU : ahitu, nekatu, abaildu
 UKONDO (ukondue): ukondo
 UKUMILL (ukumille): ukabil
 UKUTU: ikutu
 ULDU : 1. ilea galdu. 2. abaildu, guztiz nekatu; "uldute nadxak".
 ULDUNAK : soiluneak
 ULE (ulie): ile
 ULE BAKO (ule bakue): ile bako
 ULE BALTZ (ule baltza): ile baltz
 ULEBID XO (ulebidxue): urubio
 ULEDER (ulederra): ile ederra
 ULE GORRI (ule gorridxe): ilegorri
 ULE KISKOR (ule kiskorra): ile kizkur "Ule kiskorra deko orrek baltz orrek"
 ULE MENGEL (mengela): ile biguna "Len euki aben ule sapie da oiñ sietzmengeldu dxako"
 ULE SAPA (sapie): txima
 ULE SASI (sasidexe): ile nahasi
 ULE SURI (ule suridxe): ile urdin, ile zuri
 ULETZU: uletsu
 ULIE EBAL: ilea ebaki
 UMALDI (umaldidxe): umaldi (u-maldi bat erein)
 UMATU: Umatu
 UMAU : umotu, frutak berde bato eta lastota heltzea
 UME (umie): ume
 UMEDEADE: hezetasun
 UME DUI: Ume andana

- UMEGORRI (umegorridxe): umegorri "Ni nausidxe nas ume gorridxon aldien"
- UMEKERIDXA (mekeridxie): ume-keria
- UMEL (umela): umel
- UMELDAU: hezatu
- UMELDU: hezatu
- UMEMOKO: umemoko, umegorri "Ixillik egongetas ume mokuoi!"
- UMERADE (umeradie): hezetasun
- UMERRE: Ume negarti, zital. gogaitkarri
- UME SOSTOR (ume sostorra): umekondoa
- UMESEIÑ: umazain
- UMESURTZ: umezurtz "Aitte ta ama gaztetan ill dde ume surtz geratu sienien, amama etorri dxakien etxera"
- UMETERIDXA: umeteria, ume piloa
- UMETOKI (umetokidxe): Matriz
- UMETU: umetu "Umetu ei as ala olan ibilltteko?"
- UMIE EUKI: umea eduki "Oĩñ dala aste bete euki aben orrek umie"
- UMILLE: apal
- UMILYU: apaldu
- UMORE (umorie): umore
- UNA (unie): une, gune "Ater unie da ta gusan ariñ"
- UNEKADA (unekadie): tarte, bitarte, aldi; "unekadetan eukitt ot buruko miñe"
- UNTAU: gantzutu
- UNTZ (untze): intzurri
- UNTZA (untzie): hiltze
- UNTZI (untzidxe): ontzi
- UNTZIDXEK GARBITU: tresnak garbitu, harrikoa egin
- UNTZ ORRI (untz orridxe): ormetan gora joaten den intzurri moeta
- UNTZURRI (untzurridxe): hedera helix
- UPA (upie): upel
- UPETEI (upeteidxe): upategi
- UR: 1. (ure) ura. 2. (urre) urra. 3. (urrien) hurbil.

- UR ARRATOI (ur arratoie): ur arratoi
- URATZ (uratza): urats "Uratzen telias arpeidxe igurtzie ona ei da asalentzako"
- URDAI (urdaiye): urdai
- URDAI EGAL: Urdaiaren ertza
- URDEI (urdeidxe): urdai
- URDEI ASAK: urdai azak
- URDEI GIDXAR (rdei gidxerrie): urdai gihar
- URDINYU: urdindu
- URDIÑ: urdin, lizun. Azal zuri eta leuna duenari ere esaten zaio. Ile horiak ere urdinak izan daitezke.
- URDIÑ SAGAR (urdiñ sagarra): sagar moeta bat
- UREGODXEN (uregodxena): uda-goien
- UREGUEN (ureguena): udagoien
- UREK ARTU : urak hartu "Au goniau urek artu te txiki txiki esertarako gause estala geratu da"
- UR EMOI (ur emoidxe): ur emoi "Itturridxe ondo sarratu barik itxi osu, ur emoidxe deko"
- URIDXOLA (uridxolie): uriola
- URKETU : urkatu "Txin txauñ Maridxe, Txomiñ pekataridxe, ser egin ddau pekatu, ausoko txakurre urketu"
- URKI (urkidxe): urki. Gurdi-kaja egiteko ona da arina da eta.
- URKILLIE: urkulu
- URKULDU: garandu "Ipintteko lelengo urkuldu ein bidies babak"
- URKULU (urkulue): urkulu, gantxu
- URLIDXE: urlia "da esa aben: Urlidexe etorten danien emoyo-sue au"
- UROLLO (uroillue): ur oilo, gallineta "Juen san urtien ibilli ei sien ur oilluek Beketxeko presan"
- URRAI: oiloei deitzeko erabiltzen da
- URRATU : urratu
- URRE (urrie): urre
- URREGORRI (urregorridxe): urregorri "Amamak urregorrisko elestune ekarri otzo"

URRENGO (urrengue): hurrengo
 URRENGO DOMEKA (urrengo domekie): hurrengo domekan egiten den meza
 URRERATU: ondoratu
 URRESURI (urresuridxe): urre zuri, zilarra
 URRETU : urratu
 URRETUE: Urratua "Beittu selako urretue eñ daben onek"
 URRETXA: ur, urretx
 URRÍ (urridxe): urri
 URRÍÑ: urrun
 URRITXA: russula cyanoxanta; perretxiko moeta bat "urretxa"
 URRUMA (urrumie): morrosa
 URRU URRUE: korroa "Biribilketa esaten dxakonai guk urru urrue esaten geuntzen"
 URRUMADA (urrumadie): urrumada
 URRUMAKA: urrumaka, urrumadaka ekin
 URRUMA EIÑ: morrosa egin
 URRUMARA (urrumarie): urrumada "Emendixik entzuten dies beidxen urrumarak"
 URRUSA (urrusie): emea
 UR SALTO (ur saltue): ur jausi
 URTE (urtie): urte
 URTE BARRI (urte barridxe): urte barri
 URTE BETE (urte betie): sagar moeta bat
 URTE BILLOTZ (urte billotza): urte bildots
 URTE URREN (urte urrena): urte urren
 URTEIDXERA (urteidxerie): urteera "Urteidxera bakotxien sapata bat galtzen dau onek" 2.- Irteera, erantzuna. "Badeko urteidxera bakotxik norbera be lotzatute isten dau"
 URTE MESA (urte mesie): urte meza
 URTEEN: irten
 URTERAKO MESA (urteidxerako mesie): olata meza
 URTERO: urtero

URTU: urtu
 URTXAKUR (ur txakurre): ur txakur "Oñ dala berrogetamar urte Abañoko erreka batzutan be egoten sien"
 UR TXORI (ur txoridxe): ur txori, martin pescador
 URTZU: urtsu "Onek sagarrok urtzuek dies"
 URUN (urune): irina
 URUNDU: urundu
 USABA: jabe
 USAINYU: usaindu
 USAIÑ (usaiñe): usain
 USAU: erabili
 USEINKE: usainka "Ser eitton lapikuei useinke!"
 USEIÑ: usain
 USEIÑ ARTU: usain hartu. 2.- antza emon "Ensegida artuu useiñe baten baten bille dabixela"
 USEN (usena): izain "Txaketena kentzeko usenak ipintte abiesan"
 USEU: erabili
 USINGARA (usingarie): fadura, zingira
 USINGERA (usingerie): fadura, zingira
 USINYU: usaindu
 USIÑ: usain
 USKER: (uskerra) uzker
 USKERIDXA: huskeria "Es ai uskeridxa bateittik asarratu"
 USKERKA: uzkerka Ñ "Gau gustidxen ibilli da uskerka"
 USKUR (uskurre): uzkur
 USO (usue): uso
 USOKUMA "usokumie": usokume
 USOPASA (usopasie): usopasa "Usopasie udeguen inguruen ixeten da"
 USOTEGI (usotegidxe): usategi
 USO TXIKI (uso txikidxe): uso txiki
 USTA (ustie): rumex sp. Honen sustraia egosita hartuta ona ei da hepatitiaren kontra. (Ikus usta bedar)
 USTA BEDAR (usta bedarra): rumex sp. Solorako txarra

USTEL (ustela): ustel

USTELDU: usteldu

USTIAS EGON: ustean egon "Bidxer etorriko saien ustias egon ga"

USTU: hustu

UTZ (utze): huts

UTZ EIÑ: huts egin

UTZIK : hutsik

UTZITTU: hustu "Utzittuixu pitxerra ta garbittu"

UTZUNA (utzunie): hutsune "Utzuna galanta itxiko dau arek"

UXA EIÑ : uxatu

UXAKOR (uxakorra): izuti

UXATU : uxatu "Uxatuixus orrek oilluok, traba baiño estabie eitten da"

UXINGARA (uxingarie): zingira

UXOKA (uxokie): izuti

Y

YODO BEDAR (yodo bedarra): *Chelidonium majus*; landare moeta bat

Z

ZIPI ZAPIE: "z"z berba egiten duenaz esaten da.

